

Herririk Herri | 6

2013ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa ipini du martxan Anbotok



Berbaz | 10

J. Ugalde: "Pertsona nagusiek gizartean duten parte-hartzea handitu gura dugu"

Kultura | 11

Eskualdeko sortzaile bi saritu dituzte film laburren Kameratoia lehiaketan

DURANGO | 3



Durango, aurrekontu barik

Oposizio osoak EAJk aurkeztutako aurrekontuen kontra bozkatu du martitzeneko udalbatzarrean. Enplegu, etxebizitza eta gizarte arloko premiak kontuan hartu ez izana kritikatu dute. EAJk, ordea, zentzuz egindako proposamena dela defendatu du.

KIROLA | 15

Izarrez betetako Emakumeen Bira antolatu dute 25. urteurrenean

Durangaldea • Zilarrezko ezteguetan gerrikoa estutu behar izan dute krisiaren eraginez, baina hala ere munduko txirrundulari onenek parte hartuko dute Emakumeen Bira. UCiren sailkapeneko lehenengo hamarretatik bederatzi etorriko dira. Marianne Vos iazko irabazlea bakarrik faltako da, joan zen asteko lasterketa batean klabikula apurtu zuelako.



Zalora Fuertes



KOART 90

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

*Fabrikatzaileak gara eta
espazio bakoitzaren
neurriako irtenbideak
topatzen ditugu*

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea
48240 BERRIZ - Tel. / Faxa: 94 682 68 79

Durango | 2

Berialagunak egiteko kanpaina aurkeztuko du Martxelo Otamendik

Elorrio | 8

Laguntza zentroetako murrizketak kritikatu dituzte sindikatuek

Abadiño | 6

Aho batez onartu dute presoen familiei laguntzeko arautegia

Otxandio | 8

Udalak inor ez kaleratzeko eskatu dio Holtza enpresari

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO



Martxelo Otamendi (eskuinean), beste hitzaldi batean.

Otamendik Berria proiektuaren egoera azalduko du antzokian

'Zure ziztada behar dugu' kanpainaren barruan etorriko da Plateruenera

Berria egunkariak Euskal Herri osoan *Zure ziztada behar dugu* kanpaina jarri du martxan. Hainbat eragile, elkarre eta norbanakok dagoeneko erakutsi diote euren babesia Berria proiektuari.

Durangaldeko 'ziztadari' jarri diote hitzordua dagoeneko. Datoren ekainaren 6an izango da, arratsaldeko 20:00etan, Plateruena kafe antzokian. Martxelo Otamendi Berriako zuzendariak eskainiko du berbaldia. Berria proiektua zein egoeratan dagoen

azalduko du Otamendik eguazteneko berbaldian, baita martxan jarri duten kanpaina ere.

Berria proiektua zein egoeratan dagoen azalduko du Otamendik eguaztenean

Durangoko euskalgintzako eragileek bat egin dute Berriaren kanpainagaz

Erlauntza hazten

Durangoko euskalgintzako eragileek bat egin dute Berriaren kanpainagaz. Berbaro Taldea (Berbaro euskara elkarte, Anboto eta Plateruena kafe antzokia), Gerediaga elkarte, AEK, Hizkuntza Eskola, Euskal Herrian Euskaraz, Udal Euskaltegia, Ibaizabal ikastola eta Kurutzia Ikastola dira Durangaldean ziztada babestu dutenak.

Berria egunkariak atzoko alean jakitera eman zuenez, 2.900 lagunek egin dute diru ekarpena. 5.000 lagunena lortu behar dute.

LABek kalitatezko zerbitzu publikoak eskatu ditu

Sindikatuak dio zerbitzu publikoak deusezten ari direla, "negozio pribatuaren mesedetan"



LABen kontzentrazioa, atzo, Landakoko anbulatorio aurrean.

LAB sindikatuak kontzentrazioa egin zuen atzo "zerbitzu publiko unibertsalak, doakoak eta kalitatezkoak" eskatzeko. Sindikatua- ren ustez, gobernuek diru publikoagaz espekulatu egin dute eta "dirurik ez dagoenaren aitzakia erabiliz, zerbitzu publikoak deuseztu gura dituzte, negozio pribatuaren mesedetan".

Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan marko propio baten beharra azpimarratu dute

Horregatik, azken urteetan osasunean, hezkuntzan eta arlo sozialean egin diren murrizketak erretiratzeko eta hemendik aurrera zerbitzu horietako laguntzak handitzeko eskatu dute, Europa-ko batz bestekora heldu arte.

Horregaz batera, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan marko propio baten beharra azpimarratu dute Espainiako Gobernuaren esku-hartzea ekiditeko. ■ J.D.

Merkatariek erosketak elkarrekin egiteko gunea eratuko dute

Webgune baten bidez erosketak taldeak antolatu eta kostuak aurrezteko da egitasmoaren helburua

Erosketa prozesuetan kostuak gutxitzea, hornitzaile potentzial gehiago edukitzea, denbora aurrezteko, stocka hobeto kudeatzea... Hainbat helburu lortu gura dituzte merkatariek erosketak taldeekin. Banaka barik taldean eskaerak egiteko sistema Kudea enpresak egindako webgunearen bidez antolatuko dute.

Lehenengo ostalari eta merkataritza guztien interesekoak diren zerbitzuak erosteko erabiliko da plataforma: aholkularitza, energia, informatika, bulegoko materiala,

altzariak, telefonía... Gero zerbitzuak eta produktuak zabalduko dituzte.

Durangalde osoko merkataritza eta ostalariak parte hartu ahaliko dute egitasmoan irailetik aurrera. +Dendakeko presidente Guillermo Oarbeaskoak kontatu duenez, merkatarien elkartean horrelako dinamika daukate, "merkataritza guztiei zabaltea pausu bat gehiago da". Amankomunazgoak lagundu du diruz egitasmoa: 35.400 euroko aurrekontutik 30.000 euro jarri ditu. ■ A. U.



Kudea, +Dendak eta Amankomunazgoko ordezkariak.

Rubalcabak eta Lopezek Durangon ospatuko dute Larrosaren Jaia



Alderdi Sozialistak Durangoko Landako Gunean antolatu du, domekarako, Larrosaren Jaia. Ekitaldian Alfredo Perez Rubalcaba PSOEren idazkari nagusiak, Patxi Lopez Lehendakariak eta Jose Antonio Pastor Euskadiko sozialisten bozeramaileak parte hartuko dute. "Ekitaldi hau euskal sozialisten indar erakustaldia izatea gura dugu, legegintzaldiaren zaborrezko minutuetan gaudela esaten dutenen aurrean", azaldu dute sozialistek.



Premiak kontuan ez hartzea kritikatu dio oposizio osoak EAJri

Aurrekontuak luzatu dituzte; inbertsio berriak eta hitzarmenak osoko bilkuratik pasatu beharko dira

Gobernu taldearen zirriborroaren kontra egin du oposizio guztiak. Berandu aurkeztu izana eta enplegu, etxebizitza eta gizarte arloko premiak kontutan hartu ez izana kritikatu dute. Aurrekontu berria onartu ez dutenez, iazkoa luzatuko dute; inbertsio berriak eta elkarteekin egindako hitzarmenak osoko bilkuratik pasatu beharko dira.

Batez ere, enplegu eta etxebizitza arloetan "proposamen falta" kritikatu du oposizioak, eta Bilduk eta Aralarrek osoko zuzenketa bana

EAJk "zentsuz egindako proposamena" egin duela defendatu du osoko bilkuran

aurkeztu dute. EAJk "zentsuz egindako proposamena" egin duela defendatu du osoko bilkuran: "Diru sarrerak gutxituta erabakiak hartzea gaitza da". Akordioetara heltzeko prest egon direla esan du Goiztidi Diez bozeroaleak. Oposizioko alderdi guztiek, aldiz, EAJk akordioetarako borondaterik eduki ez izana kritikatu dute.



Durango Udalaren osoko bilkura, artxiboko irudi batean.

Inbertsioek, zeresana
Inbertsioetarako diruak zeresana sortu du. Hiru milioi euroko inbertsioak proposatu ditu gobernu taldeak, eta diru horretatik milioi eta

erdi euro etxeak eraikitzeko lurrak salduta lortu gura du. Oposizioak defendatu du diru hori etxebizitza arlorako izan beharko litzatekeela, baina zirriborroan ez dutela arlo

horretarako dirurik aurreikusi. Gainera, onartuta egon diren hainbat inbertsioen kredituak eskatuta daudela eta horietako batzuk bete barik daudela esan dute. ■ A. U.

Adierazpenak >



"Oposizioak ez du akordiorik gura izan, joku elektoralengatik"

Gobernu taldeak luzapen egoera "seriotasunez eta erantzukizunez" eroango duela esan du Aitziber Irigorasek. Alkatearen ustez, oposizio taldeek ez dute akordioetara heldu gura izan, "hauteskunde autonomikoen aurreko jokuak" direla eta. Beste alderdien zuzenketa "diru kantitate gehiegizkoak" proposatu dituztela baloratu du eta udalaren egoera ekonomikoa Madrilgo neurriekin zaildu egingo dela aurreikusten du.



"Errezeta zaharrak erabiltzen bakarrik dakite"

Bilduk aurrekontu parte hartzaileak aldarrikatu ditu: "Geroago eta diru sarrera gutxiago dagoen honetan herritarrak izan behar dira zertan inbertitu erabaki behar dutenak". Eider Uribe zinegotziaren berbetan, EAJk "agortutako eredu sozio-ekonomiko jakin bat mantentzearen, errezeta zaharrak erabiltzen bakarrik daki". Diru sarrerak lortzeko bide gutxi proposatu izana kritikatu, eta diru laguntzak %3 bajatzeko "indikadore falta" salatu du.



"Akordioetara heltzeko borondate falta egon da"

PSE-EEko Pilar Riosen berbetan, "EAJk austeritatez mozorrotu du iniziatiba bako proposamena". Arlo sozialean eta enplegu mailan ekimen falta somatu dute sozialistek. Horrez gainera, gobernu taldeak "akordioetara heltzeko borondate falta" eduki duela salatu du Riosen: "Gehiengoa balute moduan jokatzeko dute, eta hori ez da horrela". "Aurreko urteetan akordatuak hainbat egitasmo bete barikizateak borondate falta hori erakusten du".



"EAJk ez duen ekimen politikoa oposizioak hartu beharko du"

Aralarreko Dani Maeztuk gobernu taldearen "lidergo politikoa falta" kritikatu du: "2006tik 2011ra langabezia hirukoiztu egin da Durango, egoera guztiz aldatu da, eta aurrekontu proposamenean ez da ia aldaketarik gertatzen". Oposizio talde guztiekin batzartzeko asmoa du Aralarrek, "EAJk ez duen ekimen politikoa hartzeko". Kreditu aldarepenen bidez, osoko bilkurara denek adostutako proposamenak erroteko aukera ikusten du.



"Urtean zehar austeritate irudia desagertuko da"

PPren ustez, "gobernu taldea ez da gai izan kontsentsualortzeko". Juanjo Gastañatorrek kritikatu duenez, "diru atal batzuk jaitsi dituzte austeritate irudia eman guran, baina ziur irudi hori urtean zehar desagertu egingo dela". Diru sarrera gehiago lortzeko tasak igotzearen alde egin du PPK. EAJren zirriborroan etxebizitza arloko inbertsiorik ez dela proposatu kritikatu du Gastañatorrek. PPK horretarako 300.000 euro gortzea proposatu du.

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Igor Fernandez.
Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduako ikaslea.

www.mondragon.edu/prest



"Praktikotasunak eta enprekin daukagun harreman zuzenak edozein erronkari eusteko indarra ematen didate"

Zergatik aukeratu zenuen Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua MUN ikastea?

Zeuden aukera guztiak aztertu ondoren, MU aukeratu nuen bere hezkuntza eredu desberdina eta gaur egungoa zelako, gaitasunetan oinarriturik eta ez hainbeste ohiko azterketetan.

Zer nabarmenduko zenuke ikasteko ereditik?

Lan taldea eta kasu praktiko eta errealak. Talde bakoitzean askotariko pertsonekin jarduten ikasten

duzu, eta hau oso garrantzitsua da gaur eguneko enpresetan.

Eta, nola balorazten duzu zure esperientzia MUN?

Gradu amaierako proiektuak enprekin harreman zuzena ematen dizu, eta praktikak edo proiektua atzerrian gartzeko aukera ere bai. Lehen enplegua bizitzen ikasten duzu eta enpresa bateko egunerokotasuna bizitzen duzu. Behin gradua eta proiektua bukatuta, beraz, beste mentalitate batekin irteten zara, edozein erronkari eusteko prest.

BERRIZ

Ume saharaiak etxean hartzeko deia egin dute

'Oporrak bakean' egitasmoak bi herrien arteko loturak indartzeko balioko duela adierazi dute

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetatik egun batzuetarako urrundu, eta kultura nahiz hizkuntza berriak ezagutu. Helburu horiek edukiko dituzte, besteak beste, Berrizera datozen ume saharaiak. Denbora-tarte batez hango egoera gaitzetik irten eta osasun azterketak egiteko aukera ere edukiko dute. *Oporrak bakean* egitasmoan izena emateko deia egin die berriztarrei udalak, ekainaren 8a baino lehen.

Berriztarrek ere badute zer irabazi, antolatzaileek adierazi dute-nez. Umeak hartuko dituzten fami-

liak, Saharako kultura ezagutu ahal izango dituzte, eta bi herriren arteko loturak indartzeko ere balioko du, udal arduradunek ziurtatu dute-nez. Gainera, hemengo familiak

Hango egoera gaitzetik irten eta osasun azterketak egiteko aukera edukiko dute

diruz laguntzen dituzte, eta kanpamentuetara joatea erraztu. Bucráa herriagaz anaituta dago Berriz, 1995etik. ■ M. O.

Ezker Abertzaleak dio datu sekretuak argitzea erraztuko duela Isoirdek

Alderdien Legearen eraginez, "eskubideak urratuta" dauzkaten susmoa agertu dute Berrizko 41 herritarrek. Poliziak euren buruzko datu sekretuak dituztela, "izatera ideologikoa" dutenak, eta eza-gutu gura dituztela. Datuok argi-

tzeko tramiteak abiatzea exijitu zioten pasa den astean Orlan Isoird alkateari (EAJ) Ezker Abertzaleak eta Bilduk, eta iaz onartutako mozioa betetzeko.

Ezker Abertzaleak eta Bilduk esan dutenez, alkateagaz batzartu dira eta iazko mozioa betetzeko konpromisoa hartu du Isoirdek. Gainera, irailean berriro batzartuko ei dira, gaiaren jarraipena egiteko. Informazioa eskatu gura dutenentzako orriak udaletxean eta webgunean egongo dira. ■ M. O.

DURANGALDEA

Tabakoa uzteko ikastaroetan %85ek lortu dute helburua

Prebentzio Zerbitzuak dio kopurua igo dela emozioak lantzen hasi direnetik

Guztira, 36 lagunek parte hartu dute, eta horietatik 30ek utzi dute tabakoa. Parte-hartzaileen %85, beraz. Amankomunazgoko Drogomenpekotasun Prebentzio Zerbitzua-ren ikastaroen emaitzak dira. Atzo izan zen Tabakorik Gabeko Eguna, eta horren harira eman dituzte datuak. Vicente Fernandez da

zerbitzuko zuzendaria: "Erretzeari uzteko aukera ematen dugu, era ez-traumatikoan". Beste ikastaro bi egingo dituzte uda ostean.

Denbora pasatuta, tabakoa utzi dutenen tasa jaisten joaten da. Baina Fernandezek dio ez dela bakarrik denbora kontua, beste baldintza batzuk ere badaudela. Erabakiorrena, arazo edo gertae-

ra gogor bat erre barik pasatzeko gai izatea da. "Batzuek hiru urtez ez dute erretzen, eta susto bat edukitzean jausi egiten dira". Hain justu ere, Fernandezek dio tasa igo egin dela ikastaroetan emozioak lantzen hasi direnetik. "Mirarien bila" joateak ez ei du funtzionatzen: "Ez dago magiarik; magia norbere baitan dago". ■ M. O.



Vicente Fernandez, eskuman, Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko lehendakariagaz.

Lanerako gertu!

2012
2013

OK

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Izen-ematea
Maiatzaren 28tik Ekainaren 5era

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrialia • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa • Mekatronika Industrialia
<p style="text-align: center;">www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p>	<p style="text-align: center;">www.mondragon.edu/gmh gmhz.mgep@mondragon.edu 943 71 21 91</p>



Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balioesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



www.benetakoazgozatu.com



hazi

Landa eta itsas ingurunearen
garapenerako Eusko
Jauriaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno
Vasco para el desarrollo
del medio rural y marino.

DURANGALDEA

2013ko egutegirako argazki lehiaketa prestatu du Anbotok

Hamabi herritako hamabi argazki aurkeztu behar dira; irabazleak 500 euro jasoko ditu

Anboto Komunikabideak elkarteak argazki lehiaketa abiatu du 2013ko egutegia osatuko duten argazkiak aukeratzeko. Gaia honako hau da: *12 hile. 12 herri*. Durangaldeko hamabi herrien argazki banagaz osatutako bilduma aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek.

Bilduma urriaren 1a baino arinago aurkeztu beharko da. Bi modu daude: Anbotoko bulegora ekarrita (Bixente Kanpanaga 9, Iurreta) edo e-posta helbidera bidalita: astekaria@anboto.org.

Irabazlea argazki bat izango da: lehiaketara aurkeztuko diren bilduma guztietatik epaimahaiak

Lehiaketara aurkeztuko diren bilduma guztietatik epaimahaiak argazki bakarra sarituko du

argazki bakarra sarituko du. Argazki hori 2013ko egutegian agertuko da, dagokion herriaren erakusgarri, eta argazkiaren egileak 500 euroko saria jasoko du.

Anbotok urriaren 30a baino lehen jakinaraziko ditu lehiaketa irabazten duenaren izen-abizenak

Gainerako 11 herrietako argazkiak lehiaketara aurkeztuko diren argazki guztien artean aukeratu dira. Anbotok urriaren 30a baino lehen jakinaraziko ditu lehiaketa irabazten duenaren izen-abizenak.

Eguteko argazki lehiaketan parte hartu gura duenak, www.anboto.org webgunean aurkitu eta irakurri ahal ditu oinarri guztiak. ■ J. D.



Oinarri guztiak www.anboto.org webgunean aurki daitezke.



Urriaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak.

GARAI

Auzoetan edukiontzi berriak ipintzea onartu dute

Udalbatzarrak egitasmoa behin-behinean onartuta, hondakin-guneak uztailean aldatzea edota berritzea aurreikusi dute. Herrigunean eta Milikun lur azpiko edukiontziak kendu eta kanpoan berriak ipiniko dituzte. Kamioiek atzetik kargatu behar zuten hemen, eta gaur egungo kamioi berriak albotik kargatzeko egingo daude.

Herrigunean eta Milikun lur azpikoak kendu eta kanpoan berriak ipiniko dituzte

Aiartzan, San Juanen eta Kurutzondon birziklitzeko hiru edukiontziak egokituko dituzte. Kurutzondon, gainera, ingurua urbanizatuko dute. Barrainkun eta Beratun edukiontzi bakarra instalatuko dute, baina auzoaren kanpoko aldean, kamioia auzo barruraino sartzea sahisteko. 92.261 euroko aurrekontua izango dute. 79.396 euroko laguntza eman du Aldundiak. ■ M. O.

ABADIÑO

Presoen familiei diru-laguntza emateko arautegia onartu dute

Martitzeneko plenoan, aho batez onartu zituzten diru-laguntzaren oinarriak

Preso dauden pertsonen senideei garraiorako banakako laguntzak ematea arautzeko oinarriak, aho batez onartu zituzten martitzenean udalbatzarrean.

Gobernu taldeak azaldu duenez, eskatzaileen errentaren arabera zehaztuko dute diru-laguntzaren zenbatekoa. Garraio gastuetarako, guztira 12.000 euroko diru atala bideratuko dute urtero.

Bisita bakoitzeko, gehienez 300 euro jaso ahaliko ditu familia bakoitzak. Aurten kartzelara egindako bidaien diru-laguntza jaso ahal izateko eskariak 2013ko urtarrile-

Bisita bakoitzeko, gehienez 300 euro jaso ahaliko ditu familia bakoitzak

ra arte aurkeztu ahal izango dituzte presoen senideek.

Aurreko legegintzaldian hasi ziren preso politikoen senideentzako diru-laguntzen gaia lantzen udalean. Alkateak esan duenez, "kosta zaigu adostasunera ailegatzeko". Azken hilabeteetako hainbat udalbatzarretan presoen senide

eta lagunek hainbat aldiz eskatu dute lehentasuna ematea ordenantza hau lantzeari.

Diru-laguntzak beharrezkoak direla dio alkateak: "Bizi dugun krisi egoeran, kartzelan dauden familiakoei bisita egiteko baliabiderik ez daukaten jende asko dago".

Dispertsioa ekidin daitekeen erabaki politikoa dela azpimarratu zuen bozketaren aurretik Bilduk, "familiarrentzako gastu ekonomiko gehigarri bat eresuposatzen duena". Aitor Azueta Bilduko bozeroaleak poza agertu zuen: "Positibo ikusten dugu ordenantza hau". ■ I. E.

MALLABIA

Dozena bat lagun herri baratzetan aritzeko prest

Ortu ekologikoen inguruan martitzenean egindako bilerara hainbat herritar gerturatu zen

Herri baratzen proiektua aurkezteko bilera egin eta pentsatu baino arrakastatsua goa izan zela azaldu du Xabat Areitourtena zinegotziak: "Martitzeneko bileran aretoa bete egin zen eta herritarren artean ortu ekologikoak martxan jartzeko interesa dagoela ikusi genuen".

Uda aurretik erabiltzaileen tresnak gordetzeko etxola eraiki dura dute

Dagoeneko hamabi mallabiarrek izena eman dute udalak bultzatutako herri baratzen proiektuan parte hartzeko. Apuntatu direnetatik asko gazteak direla adierazi du Areitourtena zinegotziak. Mallazpi gaineko landan 15-25 lagunentzako zerbitzua eraiki gura dute, auzolanean. Beraz, oraindik herritar gehiagok izena emateko aukera du. Uda aurretik erabiltzaileen tresnak gordetzeko etxola eraiki eta ingurua atontzea gura dute. Aurrerago prestatuko dituzte baratzak. ■ J. G.

ZALOA FUERTES

ARGAZKILARIA | PHOTOGRAPHER

www.zaloafuertes.com
zaloa.fuertes@gmail.com
 ☎ 685 70 48 39

**ARGAZKI SOZIALA
EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BOOK**



OTXANDIO

Udalak Holtza enpresari inor ez kaleratzeko eskatu dio

Legutioko enpresan hamaika otxandiar lan barik geratzeko arriskuan daude



Legutioko industrigunean dago egurren lanketan eta tratamenduan lan egiten duen enpresa.

Holtza enpresa Legutioko industrigunean dago. 78 langile ditu eta horietatik 11 otxandiarrak dira. Likidez arazoak dituztenez, enpresako gerentziak 35 langileri iraugitze espedientea aplikatzea proposatu zuen eta gainerako langile guztiak enplegu-erregulazioan sartzea. Horregatik, Otxandioko udalbatzarrak onartutako mozio batean, "enpresa-jarduera mantentzeko" eskatu diote Holtzari, "lanpostuak mantenduko direla bermatuz". Kaleratzeko agindua bertan behera uztea

ere eskatu zioten, eta elkarrizketa eta negoziazioaren bidearen alde egitea.

Orain hilabete Holtzako akziodunen kontseiluak gerentziako kideak kaleratu zituen eta horien ordez gestio-talde bat ipini zuen. Enpresako komitea (LAB sindikatuarenak dira 5 delegatuak) talde berri horrekin negoziatzen ari da, eta 35 kaleratze aurrekusten zituen espediente hura geratzea lortu dute. Dena dela, dagoen lanerako langile larregi daudela onartzen dute, eta kon-

traproposamena egin dute: baja boluntarioen bidea lantzea, pizgarriekin. Zehazki, 35 egun ordaintzea lan urte bakoitzeko, eta urte biko langabezia amaitzen denean enpresan berriro berkokatzeko aukera eskaintzea. Enplegu-erregulazio espedientea, aldiz, beharrezko ikusten dute.

Enpresak "ixteko arriskua" ere badu, Iñaki Ortiz de Zarate LABeko ordezkariak dioenez, baina gestore berria lanean lehiakor ari dela uste du: "Hilabete barru jakingo dugu ixten den edo ez". ■ J. D.

MAÑARIA

40 herritarrek parte hartuko dute auzolanean

Auzobideak konpontzea eta herria atontzea gura dute, asteburu honetan eta hurrengoan

Auzobideak konpondu eta herria atontdu. Asmo horiek dauzkate auzolanerako. Udalak egin du deia, arrazoi ekonomikoak bultzatuta eta ohitura zaharra berreskuratuz guran. Oraingoan, 40 lagunek eman dute izena. Asteburu honetan eta hurrengoan batuko dira.

Herritarrei gabezien inguruan galdetu diete eta auzolanera gonbidatu dituzte

Bihar, 08:00etan hasiko dira. Eneritz Elgezua zinegotziak azaldu du hamar laguneko taldeak osatu dituztela, bakoitzari zeregin eta eremu zehatzak emanda. Bihar auzoetan hasiko dira lanean, eta eguerdirako herrigunera jaitsiko dira. Astia edukiz gero, barandak margotzea lako beharrak egitea ere pentsatu dute.

Guztia prestatzeko, udal ordezkariak etxerik etxe ibili dira. Herritarrei gabezien inguruan galdetu diete eta auzolanera gonbidatu dituzte. ■ M. O.

IZURTZA

Jaietan mantendu egingo dute mozorro lehiaketa

Mozorrotzeko gai bat zehaztuko dute aurten

Jai bartzordea iraileko jaiak prestatzen ari da apurka-apurka. Astelehen honetan izan duten batzarraren iaz lehenengoz antolatuko zuten mozorro lehiaketa mantentzea erabaki dute: "Herritarren erantzuna ona izan zen eta jai giroa sortzen ere lagundu zuen; horregatik erabaki dugu ekimena berriro antolatzea".

Joan zen urtean ez zuten mozorrotzeko gairik zehaztu, eta horrek zaildu egin zuen epaimahaiaren lana. Horregatik, aurten gai zehatz baten inguruan antolatuko dute lehiaketa. Hainbat proposamen izan dira, baina oraindik ez dute bat aukeratu. Hurrengo batzarra ekainaren 18an egingo dute. ■ J. D.

IURRETA

279 lagunek parte hartu dute kultur arloko ikastaroetan

Aurten, 279 ikasle batu dira udal eskaintako kultur ikastaroetan. Hamasei ikastaro antolatu dituzte guztira; horietatik bi, umeentzako (pintura eta ingeles ludikoa). Eta guztiak bete dira. Antolatzaileek eskaintzak ondo funtzionatu duela nabarmendu dute, eta ikastaro bakoitzak bere publikoa duen arren, yoga delako ikasle gehien batu dituen. Gazteen artean, argazkigintza eta sabel dantza ikastaroek izan dute arrakasta handiena.

Antolatzaileek eskaintzak ondo funtzionatu duela nabarmendu dute

Urteko lana erakusteko, jaiak egin dute Olaburun, atzo. Aretok dantza, Karibeko dantza, sabel dantza, gimnasia eta yoga erakutsi zituzten. Gero, luntxa eta erromeria egin zuten. Ibarretxen ikusi daitezke egur-lanketa, argazkigintza, eskulan eta pintura ikastaroetako lanak, gaur. ■ A. B.

ZALDIBAR

Ur hornidura sarean konponketak egingo dituzte San Andresen

Eguaztenean onartu zuten ur hornidurarako eta beste inbertsio batzuetarako kreditua handitzea

Ahobatez onartu zuten Bildu, PSE-EE, EAJ eta PPko zinegotziek gobernu taldeak proposaturiko kreditu gehikuntza. Udalaren soberakineko dirua baliatuko dute inbertsio horiek egiteko. Martxoan onartu zuten udal aurrekontuan jaso barik zeuden hainbat inbertsio barneratu dituzte, horrenbestez, aurtengo aurrekontuan. Horrela, 198.000 euro gehiago izango ditu udalak hainbat inbertsiotarako.

Futbol zelaia ureztatzean urrik barik geratu izan dira San Andresko auzotarrak

Diru horregaz finantzatu dituztenetik hiru proiektu azpimarratu ditu Arantza Baigorri alkateak. Batetik, Soloberria futbol

zelaia inguruko San Andres multzoko etxebizitzetan ur horniduragaz daukaten arazoak konpondu gura dute, bestetik. Aurrekontuan egindako aldaketa horren ostean, 90.000 euro bideratuko dituzte horretara. Uraren sarea konponduko dute. Izan ere, azken urteetan, futbol zelaia ureztatzen dutenean urrik barik geratu dira San Andresen. Udako bi hilabete inguru beharko dituzte obratarako.

Zalduerako, 60.000 euro Bestetik, Zaldua plaza konpontzerako 60.000 euro bideratuko dituzte. Udan egingo dute obra hori. Gainera, joan zen astetik Olazar frontoiaren ondoan ipini dituzten ariketa fisikoa egiteko makinak 13.000 euroko gastua ere barne hartzen du eguaztenean onartutako kreditu gehikuntza horrek. ■ I. E.

2012-2013
Ikasturtea

ZUREZKO AROTZERIAKO
FABRIKAZIOKO, MUNTAIKO
ETA AKABERETAKO LANGILEA

PINTURAKO, PAPEREZTADURAKO
ETA ERAIKUNTZAKO BESTE
AKABERA BATZUETAKO LANGILEA

SUKALDEKO
ETA ZERBITZUKO LANGILEA

ITURGINTZAKO LANGILEA

Durangaldean labor

El Material Aislante enpresa itxi egingo dute Abadiñon

Egoera ekonomiko txarraren ondorioz, Abadiñoko Traña-Matiena auzoan dagoen El Material Aislante enpresa itxi egingo dutela jakinarazi die enpresako zuzendaritzak sindikatuei. Oraindik ez dizkiete ofizialki dokumentuak aurkeztu. El Material Aislante enpresa 1948an sortu zuten eta harrez gero mota askotako hodiak egin izan dituzte. Guztira, enpresa horretako 40 langile geratuko dira kalean.

Tribunal Sinbolikoaz mintzatuko dira Elorrion

Indarkeria matxistaren kontrako Tribunal Sinbolikoa eratu gura dute Euskal Herrian. Joana Etxanok aurkeztuko du ideia. Elorrioko Berdintasun sailak eta Mugarik Gabe elkarteak eraturako berbaldia da. Gainera, Esther Maria Gallego Zapata etorriko da Kolonbiatik. *Ruta pacifica de las mujeres* ekimena aurkeztuko du, 19:00etan hasita, Arriolako Ateneoan.

Auzokideekin gazte lokalei buruz, bihar

EHUko ikasle talde bat gazteen lokalen ordenantza berria erredaktatzeko prozesua bideratzen dabil. Auzokideekin batzarra deitu dute bihar, 11:00etan Pinondo Etxeko azken solairuan. Ordenantzan inplikaturik dauden eragile guztiak berba egitea da asmoa.

Udako kanpaldian Nafarroara doaz

Intxorta Asti elkarteak udako kanpaldia eratu du uztailearen 2tik 14rako. Lezaunera (Nafarroa) joango dira sei eta hamasei urte arteko umeekin. Iturri kultur etxean batzartuko dira gaur, 17:00etan, informazioa emateko. Izena emateko, gaur eta datorren barikuan egin ahalko da.

ELORRIO

Laguntza zentroetan egindako murrizketak kritikatu dituzte

“Mendekotasun egoeran daudenek ez dute jasotzen beharrezko laguntza”

Laguntza zentroetako behar-ginak Elorriko kontzentratu ziren joan zen barikuan, langileen ordezkapenetan egindako murrizketak gaitzesteko. Zumelegin eta Elorriko Laguntza Zentroan

Zumelegin eta Elorriko Laguntza Zentroan batu ziren, LAB, ELA, UGT eta CCOO-ek deituta

batu ziren, LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuek deituta. “Egoitza horietan mendekotasun egoeran dauden pertsonak ez dute jasotzen behar duten laguntza”. Behargin faltagatik gabeziak hainbat



Murrizketak kritikatu eta ordezkapenak eskatu zituzten elkarretaratzean.

Hainbat elkarte Truke Azoka eratu dute, herritarrek erlazioatzeko

Ekainaren 10ean egingo dute Elorriko Truke Azoka. Herriari bizitasuna ematea eta herritarren arteko hartu-emanak bultzatzea ipini dituzte helburu. “Kontsumoan zentratu barik jendearen arteko

erlazioetan sakontzea da asmoa”. Hauek dira antolatzaileak: Betsaide dantza taldea, Elorriko ekologia taldea, Gaztetxea, Intxorta Asti elkarte eta Kainabera garapen eta lankidetzaren elkartea.

10:00etan egingo diote azokari, plazan. Norbanako zein elkarrekin parte hartu ahalko dute. Gauza baliagarriak eroatea eskatu dute. Izena eman gura duenak, trukeazoka@gmail.com helbidera idatzi behar du. ■ M. O.

Nerabeak sare sozialetan zelan dabilzan aztergai, Maite Goñigaz

Txintxirri ikastolak Maite Goñi irakaslea gonbidatu du Elorriora, datorren martitzenean berbaldia eskaintzeko. Nerabeek teknologia berriak zelan erabiltzen dituzten kontakutako du. Erabilpen horretan

esparrutan sortu direla ohartarazi dute: pertsonen higiean, jatorrietarako laguntzan edota aisialdiko jardueretan.

Enplegatuei begira, sindikatuek kritikatu dute gizarte zerbitzuen arloko murrizketek langileen zama handitzen dutela. Ordezkapenak egiten zituzten pertsonen enplegu publikoa “suntsitzen” dutela ere gaineratu dute. Horrekin batera, Aldundia zerbitzu

Sindikatuak kritikatu dute murrizketek langileen zama handitzen dutela

publikoetan pribatizazioa sustatzen dabilela diote. Pribatizazioak prekarietatea eta kalitatearen murrizketa dakarrela uste dute.

Batzar Nagusietan aztertzen Sindikatuek diote mobilizatzen jarraituko dutela, oraindik erantzunik jaso ez dutelako. Batzar Nagusietan ere gaia eztabaidatzen hasi dira dagoeneko. Bilduren eta PSE-EEren batzarkideek arauz besteko proposamen bat aurkeztu dute sindikatuen eskatuta. EAJketa PPK ezeko eman dute, sindikatuek azaldu dutenez. ■ M. Onaindia

sor daitezkeen arriskuak eta aukerak aztertuko ditu. Gainera, erabilpen arduratsuz eta gurasoek honetan daukaten paperaz egingo du berba. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da berbaldia, Iturri kultur etxean.

Maite Goñi Mondragon Unibertsitatean eta Ordiziako Jakintza ikastolan dabil beharrean. Hainbat ikastaro eman ditu, teknologia berriak eta irakaskuntza uztartuta. ■ M. O.

ATXONDO

Udaletxeko teilatu egituraren konponketak egiten ari dira

Orain hile pare bat teilatu ertzeko zati bat erori egin zen udaletxeko balkoira. Gertaera horrek eta udalbatzarrean sortu den itogin batek kezkatuta, udal ordezkariek teilatuaren egoera aztertzea agindu zuten. Azterketa horrek azaleratu duenez, eraikinak ez du material iragazgaitzik teila eta egitura orokorraren artean. Ondorioz, urteak joan ahala egitura zati batzuk ahulduz joan dira eta horregatik erori da ertz bat.

30.000 euroko diru atalagaz material iragazgaitza ipiniko dute teila azpian eta apurtutako ertzak konponduko dute. ■ J. D.

Murrizketak bertan behera uzteko eskatu diote BBKri

BBK bankuak hainbat herritako bulegoetan eskaintzen duen zerbitzua murriztu du. Esaterako, Atxondon astelehenetan itxi egin dute bulegoa. Horregatik hainbat herritako udal ordezkariek batu ziren Bilbon, martitzenean, eta prentsaurrekoa eskaini, BBKren egoitza aurrean. Atxondo, Ea, Elantxobe, Busturia eta Aulestiko ordezkariek batu ziren. Murrizketak bertan behera uzteko dioen idatzia irakurri ostean BBK-ko bezeroen harretarako zerbitzuan utzi zuten. ■ J. D.



LOTU ZURE ETORKIZUNA!



AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra


Tel.: 94 466 88 00
www.iurreta-institutua.net
idazkaritza@iurreta-institutua.net



IURRETA
ELEIZATEKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Iurreta
XXV.

Emakumeen Bira

2012

Ekainaren 7tik 10era



Abadiño



Lekeitio



Urduña



Argazkiak: Jon Iglesias



anboto
komunikabideak

BERBAZ >

“Elkarregaz ikasten jarraitu gura dugulako sortu dugu elkartea”

Pasibotasunetik aktibotasunera pasatzeko deia egin dute Durangaldean sortu berri duten Bizidun elkarteko kideek



**Jose Mari Berriozabal,
Juanita Bastida,
Jabier Ugalde •**

• Bizidun jubilatutako elkarteko kideak

Jakinmina dute eta, orain, ikasteko denbora ere bai. **Aman komunazgoak antolatutako Durangaldeko Esperientzia Institutuan (DEI) parte hartu ostean, Bizidun elkartea sortzea erabaki du jubilatutako talde batek. DEI n ikasturtea amaitu dutenei proiektuaren berri eman zieten eguaztenean. Jubilatutako guztiei parte hartzeko deialdi zabala egin diete.**

Zelan sortu da elkartea eratzekeo asmoa?

Jabier Ugalde: Jubilatutako nintzenean Iratxe alabak esan zidan bazuela beharra niretzat, eta Durangoko Merindadeko Aman-

“Ikastaroetan ez daukagu presiorik. Exigentzia barik ikasten dugu”

“Bizitza osoa lanean egon gara. Orain guretzako denbora daukagu”

komunazgoko Esperientzia Institutuari buruz berba egin zidan. Hainbat berbaldi eta ikastarotan parte hartu nuen. Ikasturtea amaitzerakoan zeozer egin behar genuela pentsatu genuen. Horrelaxe sortu da elkartea eratzekeo asmoa.

Jose Mari Berriozabal: Esperientzia Institutuan jaso dugun formazio horretatik eta gure ezagutzan sakontzeko dugun gogo horretatik sortu da elkartea eratzekeo asmoa. Elkarregaz ikasten jarraitu gura dugulako sortu dugu elkartea.

Zein ikastaro izan da gehien gustatu zaizuen?

J. U.: Denak izan dira interesgarriak, baina batez ere giza harremanei buruzkoa aukeratuko nuke. Tratu pertsonalak, dialogoak eta abar azaldu zituen psikologoak. Besteei entzuten ikasten erakutsi zigun.

J. M. B.: Josu Novo psikologoaren izena esango nizuke. Berak asko balio du klaseak emateko. Emozio eta jarrerren munduan barneratu gaitu. Elkartea sortzen lagundu digu, baita Eibarko taldeko Evak ere.

Juanita Bastida: Komunikazio mailan hainbat hausnarketa egingen lagundu digu. Ez dakigu entzuten. Falta hori topatzen dut.

Ikasketetara bueltatzeaz zelan hartu duzue?

J. B.: 11 urtegeaz eskola utzi eta esne partitzeari ekin nion. Gero, aukera izan nuen graduatu eta Lanbide Heziketa ikasteko. Orain beste gauza bat da.

J. M. B.: Aurretik egindako ikasketekin alderatzen badugu, orain ez daukagu hainbeste ardura. Exigentzia maila norberak jartzen dio bere buruari. Ez dago presiorik ikasturtea gaintzeko. Ilusioa dugu aktiboak izateko, parte hartzeko, gure artean erlazionatzeko, ikasteko...

J. U.: Gainera, Durango, Zaldibar, Elorrio, Markina eta hainbat herri-tako lagunak ezagutu eta lagun taldea sortzeko balio izan digu. Aberastasun handia eman digu horrek.

Jubilatuta baina jarrera aktibo barik daudenei, zer esan?

J. U.: Parte har dezatela. Batez ere etorri eta proba dezatela.

J. B.: Pasibitateatik irten daitezela eta aktibitatean sartu daitezkeela. Ez da erreza. Zenbat ahalegin egingo genuen inguruan!

Bizitza osoa lanean eman eta gero egun baten jubilatzea gaitza egin zaizue?

J. B.: 2005eko ekainean jubilatutako nintzenean esan nuen: “Bueno, planto. Ni nor naiz?”. Nik ez nekien nor nintzen ere. Apurka-apurka oso ondo. Bizitza osoa

lanean egonda, norberarentzako denbora dugu orain. Beti arineketan, bost seme-alaba, baserria, lana...

J. M. B.: Aldaketa handia da, baina norberak ere mentalizatuta egon behar du. Jakin egin behar dugu libre bagaude beste gauza batzuk topatu behar ditugula.

Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

J. M. B.: Taldearen zein norbanakoaren gaitasunak bultzatzeko ekintzak antolatzea. Pertsona nagusien marjinazioa alde batera utzi eta gizartean duten parte-hartzea handitu gura dugu.

Zertan datza zuen ekintza plana?

J. M. B.: Hainbat arlotan lan egin gura dugu: hezkuntza, kultura, osasun fisiko eta psikikoa, arlo soziala eta komunikazioa.

Belaunaldien arteko harremana zelakoa da?

J. B.: Peruko gazteekin bideokonferentziak egin genituenean han zelan jolastan duten azaldu ziguten. Mikrofonoa hartu eta esan nien oraingo umeek ez dutela astirik ez jolas horiekin jolasteko ezta nagusiekin lasai berba egiteko ere. Eskolatik irten eta musika, kirola, ingelesa, dantza... Gure amamak zenbat kontu kontaktzen zizkigun! ■ J. Guenetxea



@anbotokultura

KULTURA

FILM LABURRAK

Eskualdeko sortzaile bi saridun Kameratoian

'Goitik behera' gaia hartuta, bost egun eduki dituzte parte-hartzaileek Kameratoian irudiak grabatzeko eta lanak aurkezteko. Topagunea euskara elkartearen federazioak antolatzen duen film laburren lehiaketa da Kameratoia. Judit Fernandez zaldibartarrak eta Ander Lauzirika iurretarrak sari bana jaso zuten zapatuan, Gernika-Lumon, euren taldeekin aurkezturiko lanengatik. www.kameratoia.com helbidean daude bideo labur guztiak ikusgai.



“Film laburraren amaiera muntatu genuen lehenengo”

Lagunagaz batera, lehiaketaren hirugarren saria jaso zuen Ander Lauzirika iurretarrak; 'Zuhaitzaren eguna' aurkeztu zuten Kameratoian



Zelakoa izan zen Gernika-Lumoko esperientzia?

Oso polita izan zen, nahiz eta grabaketa zaila egin zitzaigun. Lagun artean egin genuen: agertzen direnak lagunak dira denak.

Umoretik jo zenuten.

Bai, horrela ateratzen zaigu! (barrez) Gauza denei buelta ematea gustatzen zaigu, betiko-tasunetik ateratzen saiatzea.

Kritika kutsua ere badu?

Ez da logikoki pentsaturiko kritika bat, senari jarraituta egingakoa baizik. Baina egia da ironia ere badagoela...

Zelan landu zenuten?

Bertsolariek egiten duten bezala, amaiera pentsatu eta muntatu genuen lehenengo. Amaiera ulertuko dela ziurtatzen duzu

horrela. Batzuetan gertatzen da, kronologikoki hasten zarela muntatzen, eta amaierarako tarte gutxi uzten duzula.

Zer uste duzu gustatu zaiola zuen lanetik epaimahaiari?

Uste dut normalean ordu eta erdiko fikziozko filmetan lortzen dena lortu dugula: istorio oso bat garatzea. Film laburretan gehienetan gauza gutxiago gertatzen da, eta gehiago lantzen da gauzak kontatzeko modua. Agertzen direnak baino irudi gehiago grabatu genituen, baina denbora muga dela-eta gauza batzuk kanpoan geratu dira.

Honelako lehiaketetan parte hartu izan duzu lehenago?

Orain hiru urte inguru Elorrioko lehiaketara aurkeztu ginen Unai [taldekidea] eta biok. Aurrez ezer pentsatu barik joan ginen, eta ez genuen lanaren ez grabazio lana ezta editatzea ere amaitu. Estresante samarra izan zen, eta erabaki genuen hurrengorako hobeto pentsatzea.

Nondik dator zure ikus-entzuzkoekiko zaletasuna?

Arte Ederrak amaitu nuenean argazkigintzara hurreratu nintzen. Azken bi urteetan dihardut gehiago argazkigintza eta bideoari lotuta. ■ I.E.

“Film labur osoan gura izan dugu emandako gaia islatu”

'Ondoezik' izenburuko lanagaz irabazi dute Judit Fernandez zaldibartarrak eta Leire Aizpuru eibartarrak Kameratoia lehiaketaren lehenengo saria.

Zer uste duzue baloratu duela epaimahaiak gehien?

J.F.: Maratoietan beharrezkoa da gaia ondo markatu eta eskatutako ezaugarriak agertzea. Gauzak ez dira kasualitatez egin, eta asko zaindu dugu hori dena...

L.A.: Goitik behera gaia eman ziguten eta film labur osoan gura izan dugu emandako gaia islatu, ez bakarrik esaldi batean edo momentu jakin batean. Planoak grabatzerakoan, adibidez, goitik beherako planoak grabatzen saiatu ginen.

Zuei, ikusle bezala, zer gustatzen zaizue zuen lanetik gehien?

J.F.: Gustora geratu gara lanagaz, eta besteen lanak ikustea ere aberasgarria da beti; gai batetik zenbat gauza atera daitezkeen!

Zer gura izan duzue lanagaz transmititu?

J.F.: Errutinari ohituak gaudela esateko, protagonistak edozein eguneko izan daitezkeen bere ibilbidea kontatzen dio norbaiti. Baina badira bidean aurkitzen dituen gauza asko, oharkabean pasatzen ez direnak, eta protagonistari ondoeza eragiten diotenak. Abiadura Handiko Trenaren obrak, kasu honetan. Horretara ez da ohitzen.

Zelan landu duzue testua?

J.F.: Protagonista bere burua erekin ari da. Istorioa off-ahotsaz kontatu dugu. Testuak irudietara eraman gaitu, eta irudiek testua horrelakoa izatera.



Irudiak lantzean zer ideiaz jardun duzue? Erritmo lasaia gura izan duzue transmititu?

L.A.: Bi parte desberdin daude filmean. Batetik, hasiera; eta bukaera bestetik. Hasieran eta bukaeran erritmo lasaia goa daukate irudiek, mozketa gutxiagorekin. Tartekoari erritmo biziagoa ematen ahalegindu gara: kamera mugimendu gehiago eta mozketak egin ditugu. J.F.: Erritmo lasaia batekin gauzak eramangarriagoak dira, eta agian ulergarriagoak ere bai. Istorioari oso ondo zetorkion erritmo hori, atentzioa irudietara eramateko.

Zelan funtzionatzen duzue? Zelan banatzen duzue lana?

J.F.: Ez da lehen aldia elkarrekin lan egiten duguna film bat egiteko. Ez gara espazio berdinean elkartzen baina taldeko lana da azken finean. L.A.: Judit kameragaz eta gidogintzan ibili da batez ere, eta ni edizio lanetan.

Zelakoa izan zen grabazio lana? Eta edizioarena?

J.F.: Goitik behera eta alde batetik bestera korrikan! (barrez). Nik grabatzen nuen bitartean, Leire muntaketa lanekin aritzen zen. Banaketa hori ere nahitaezkoa dela pentsatzen dut. L.A.: Ni grabazio lanaren egunean bakarrik egon nintzen. Edizioan aritu naiz batez ere. Nahiko argi genuen lana nondik nora joatea nahi genuen, eta horrek erraztu egin du edizio lana ere.

Elkarrekin lan egiten jarraitzeko asmorik baduzue?

J.F.: Bai, noski! Oso garrantzitsua da lanean ulertzen zaituen norbait aurkitzea, eta osagarri izatea. Gauzak nahi dituzun erantzatze edizioan lankide ona izatea ezinbestekoa da. L.A.: Printzipioz bai. Topaguneak Benito Ansola sariak ere antolatzen ditu, ikusentzuzkoak egiteko laguntzak emateko, eta bertan aurkezteko intentzioa badaukagu behintzat. ■ I.E.

DANTZA >

Unai Elorriagaren gidoia oinarri duen dantza ikuskizuna, Durangon

Burdinaren industriak Bizkaiko gizartean zelan eragin duen dantzaren bidez islatzen du *Burnia* ikuskizunak; ekainaren 8an San Agustinen eskainiko du Aukeran dantza taldeak

Edu Muruamendiarazen zuzendaritza eta koreografian oinarrituta sorturiko lana da *Burnia*, eta Fernando Velazquezen musikagaz eta Unai Elorriagaren gidoiagaz burutu dute. Ekainaren 8an, 22:00etan, San Agustinen eskainiko dute.

Hamar dantzarik jarduten dute Aukeran taldeak prestatutako ikuskizuean

Bilbo inguruan eta Bizkaian hain zabaldua egon zen burdinaren industriari egiten dio erreferentzia *Burnia* ikuskizunak. Labe garaietan landutako burdinak bizitzako zenbat esparrutan eragin zuen gogoetatzen dute: itsasontziak, trenak edota zubiak ezeze,

“gure burmuina ere burdinazkoa da”, obraren aurkezpen orrian dakarrenez. Hamar dantzarik jarduten dute Aukeran taldeak prestatutako ikuskizunean.

Donostian, 1997an sortu zuten Aukeran taldea, eta tradiziozko dantza abiapuntu hartuta, lengoia berriak sortzea dute helburu. Bestelako adierazpideak lantzen dituzte euskal dantzaren aberastasuna erakusteko.

Asteburu honetan Gernika-Lumon eskaini dute *Burnia*. Durangokoa, Euskal Astearen egitarauaren barruan eskainiko dute. Eta azaroan bueltatuko dira Durangaldera, Elorriora. ■ I. E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Julian Bakedano Zinegilea



Frazer

Sir James George Frazer (1854-1941), eragin handiko antropologo eskoziarra izan zen magia, mitologia eta erlijio konparatua- ren hasierako garaietan. Frazerrek bizimodu lasai eta isolatua eroan zuen, eta nahiz eta 1930etik itsu egon, errutina horrek ikerketa kopuru ikaragarria idazteko aukera eman zion, irakaskuntzarekin uztartuta.

Bere maisulana *The Golden Bough* da (*Urrezko Adarra*), eragina izan zuena Freud, Eliot, Yeats, Joyce eta Lezama Limarengan, besteak beste. Obra horri egiten zaion kritika nagusia da tesia ez dagoela behar beste frogatua, eta hala ere harrigarria da zelako ahalmena duen Frazerrek kultura askotako mitoen eta erri- tuen arteko loturak egiteko; magia, zientzia eta erlijioa ez doazela hain bide desberdinetatik sostengatzen dute lotura horiek.

Tesiaren arabera, magiaren akatsek erlijioetara bideratu zuten, eta zientziaren abiapuntua ere ez da hain desberdina ideia orokorretan. Baiezta- pen horiek eragin zuten eztabaida, baina baliogabetu barik antze- ko pertzepzio eta beldurrek antze- ko mitoko eragin zituztela kultura guztietan, eta kultura guztiek gorde zutela mitoetan unibertsoari buruzko intuizio bera eta izaera sakratuaren inguru- ruko sentipena, ulermenetik haratago.

Liburuan irakur daiteke: “Iniziazio erritu hauen esentzia, heriotza eta berpiztea imitatzean, gizakiaren eta bere totemaren arteko bizi- edo arima-trukea da. Aldaketa posible horren sinesmen primitiboa begi bistakoa da ehiztari euskaldun baten istorioan, hartz batek hil zuela kon- tatzen zuena, baina animaliak, hil ostean, bere arima pasatu ziola gorputzera, hartz bertan geratu eta bera hartz bihurtuta, haren arimak berpiztuta”.



MUSIKA >

Dinerok kanta berriak ipini ditu Interneten entzungai

‘Año perro’ diskoko sei kanta daude taldearen webgunean

Bigarren diskoa kaleratu du Dine- ro taldeak: *Año perro* deitu dute. Alacant-eko taldekide bigaz Ekain Elortza Berrizko bateria-jotzai- leak Madrilen martxan ipinitako hirukotea da Dinerok. Disko berri- ko sei kanta ipini dituzte asteon taldearen webgunean entzungai:

Diskoa aurkezteko hainbat kontzertu dauzka Dinerok lotuta

Lomismo izeneko singlea eta bes- te bost kanta daude [www.dinero- music.com](http://www.dinero-music.com) helbidean. Bestalde, diskoa zortzi euroan eskuratzeko erreserba egiteko aukera ere eskaintzen dute webgunean.

Diskoa aurkezteko hainbat kontzertu dauzka Dinerok dagoe- neko lotuta. Besteak beste, Iruñea- ko, Bartzelonako, Albaceteko, Tole- doko eta Burgosko musika jaial- dietan joko dute.

Erritmo oso bizian dihardu Dinerok, duela hiru urte sortu zutenetik. Aurreko diskoagaz 150 kontzertu eskaini zituzten. ■ I.E.

ZINEMA >

‘Gazta zati bat’ ikusgai bigarrenez, Plateruenean

Ekainaren 8an emango dute Jon Maiaren dokumentala

Maiatzean egin zuten emanal- diaren arrakasta ikusita, eta har- tara bertaratu ez zirenei beste aukera bat eskaintzeko, berriro emango dute *Gazta zati bat*, ekai- naren 8an, 22:00etan, Platerue- na kafe antzokira.

Datozen egunetan baina, beste aukera bat ere izango da Durangaldea Jon Maia bertso- lariak zuzendu duen dokumen- tala ikusteko. Ekainaren 3an emango dute Elorrioko Arriola antzokiann. Jon Maia zuzendaria gonbidatuko dute emanaldi horretara, gainera.

Euskal Herria eta Eskozia paisajeak, eta Nazioen Mundua- ren ibilbidea dira filmaren ardatz nagusia, Maiaren berbetan. “Inork aro aldaketarik zetorrela ikusten ez zuten, desberdin pentsatzen zuen jendearen artean autodeter- minazio eskubidea lantzen hasi ziren Idiazabalen”. ■ I.E.

Nazioen Munduaren ibilbidea da filmaren ardatz nagusia

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

EKAINAK 1 22:00etan
BERRI TXARRAK
KONTZERTUA. Sarrera: 13-17 euro.

EKAINAK 6 20:00etan
BERRIA LAGUNA
HITZALDIA. Martxelo Otamendi.

EKAINAK 8 22:00etan
GAZTA ZATI BAT
DOKUMENTALA. Sarrera: 5 euro.

EKAINAK 9 20:00etan
AFTITUD. SOMALIAREN ALDEKO HIP HOP JAIALDIA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

UN LOCO DE DESATAR
(Las paradojas de El Cósmico)
Trastada Teatro (Eibar)
Ekainak 1 • 22:00

BURNIA
Aukeran Dantza Taldea
Ekainak 8 • 22:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

ARGAZKIGINTZA >



Maroko eta Senegalgo gazte etorkinen errealitatea, argazkien eta testuen bidez

Durango bizi diren hamar etorkin gazte Rebelart argazki tailerlean parte hartu ostean sortutako piezak daude ikusgai San Agustin kulturgunean, pasa den barikutik, hamar begiraden bidez migrazioa hurbiltzeko

Eduardo Galeano idazlearen aipua da, Rebelart erakusketaren eskuorriaren sarrean irakurri ahal dena: "Munduko mundu ugariak dira mundu honen barruko gauzarik onena". Durango bizi diren Senegalgo eta Marokoko hamar gazte azken hileotan egin duten lanaren erakusketa da, Rebelart argazki taileraren ostean sortutakoa, Durango San Agustin kulturguneko sarreran ipini dutena.

Txelu Angoitia argazkilari durangarrak gidatu zuen Rebelart izeneko tailerra

Joan zen barikuan egin zuten erakusketa inauguratzeko ekitaldia

Hamar gazte horien begiraden bidez, migrazioa hurbiltzeko modua izango dute erakusketan bisitatzeko dutenek, baita etorkin gazteen errealitatea edota ilusioak ezagutzeko ere.

Txelu Angoitia argazkilari durangarrak gidatu zuen Rebelart izeneko tailerra. Inaugurazio ekitaldian azaldu zuenez, argazkilaritza ardatz hartuta, identitateaz gogoeta egin dute saioetan, besteak beste. Argazkilariak pro-

posatutako gaiei buruzko argazkiak egin, eta guztien artean komentatu eta ekarpenak egin zituzten tailerlean.

Etorkinek parte hartzeko

Arrazoi ekonomikoak edota familia berrantolatze beharra direla eta emigratu behar izan dutenek Durango gizartearen parte har dezatela bultzatzeko antolatuta zuten Rebelart tailerra. Aurten egin dute lehenengo biderrez.

Inguruko errealitateari buruz gogoeta egin dute gazteek taileraren bidez. Hausnarketak argazkiekin eta testuekin adierazi, eta emaitza bisitariekin konpartitu gura izan dute.

Argazkiez aparte, euren bizitzako pasarteak azaltzen dituzten testuak ere bildu dituzte erakusketa parte-hartzaileek: Doudou, Awa, Hubert, Lahcen, Mbaye Sakho, Rocky, Nash, Vitor Diatta, Cheikh eta Leopoldek.

Joan zen barikuan egin zuten erakusketa inauguratzeko ekitaldia. Jendea barruko erakusketara erakartzeko, danbor afrikarren eta txalapartaren soinuak eskaini zituzten, eta bisitari asko hurre-ratu ziren erakusketara. Ekainaren 7ra arte egongo dira ikusgai gazteek Rebelart tailerlean egindako lanak, Durango San Agustin kulturguneko sarreran. ■ I. E.

MUSIKA >

Durangaldeko abeslariak Bizkaiko kantarien finalera

Herrialde osoko 31 talde eta bakarlari ariko dira Bilbon

Guztira, 31 talde eta bakarlarik kantatuko dute Euskal Kantu txapelketaren Bizkaiko finalean: domekan, 12:30ean, BBKren Bilboko aretoan. Durango, Atxondo, Abadiño eta Mallabiako parte-hartzaileek kantatuko dute.

Durangaldekoekin batera, maiatzean zehar Durango eta Bizkaiko beste herri batzuetan jokatu zituzten kanporaketetan sailkatutako taldeek kantatuko dute domekako finalean. Euskal Kantuzaleen elkarteak antolatu du Kantu txapelketa.

Talde onenak hautatzeko lehian, Durangaldeko Geu Be, Bi Gehi Bi, Xaramel taldeak ariko dira, eta hirukote bat ere bai, Iraitz Udabek, eta Iraia eta Irantzu Rojo ahizpek osatutakoa.

Euskal Kantuzaleen elkarteak antolatu du kantatu txapelketa



Bakarlarien eta bikoteen sailetan ere kantatuko dute Durangaldekoek. Besteak beste, Markina, Balmaseda, Barakaldo, Sodupe edo Bermeoko abeslariak

Bakarlarien eta bikoteen sailetan ere kantatuko dute Durangaldekoek

izango dituzte lehiakide, Euskal Herriko finalera sailkatzeko lehian. Ekainaren 16an, Donostiako Antzoki zaharrean izango da Euskal Herriko final nagusia.

Ekainaren 1etik 30era



EGIN ITZAZU ZURE EROSKETAK
PEZETETAN

- Adolfo Dominguez · Alki Decoración · Alluitz Motor · Amaia · Bar Anboto · Boutique Arana · Foto Arentza · Muebles Arriandi · Bardezi Hombre · Bardezi Mujer · Bizibike · Briko-etxe · Caribú · Crisis · Databost · Deelena · Desberdin · Duer Consultores · Solarium Durango · Carnicería Echaniz · Eguren · El Armario de Lola · Suministros Ficar · Esoft · Etxedreams · Fercy · Folder · García Arino Kirolak · Bar Restaurante Gastelu · Calzados Goien · Cortinas Gorroño · Gutizi · Hemen Shop · Ikerfer · Ilargi Iluminación · Instituto Óptico · Librería Irakurri · Peluquería Iunik · Kaiala · K&M Iteak.com · M. Badiola · Gonzalo Mancisidor · Masvacatas · Café Misarbe · Calzados Murgoitio · Naranja · Oliver · Pizeli Interiores · Bar Pol Pol · Royuela Decor · Sillero · Sistemas de Descanso Centro Hogar · Snoopy Strike · Susi Sylke · Tabira Color Joyería Tabira · Taket · Telepizza · Tina Miñón · Trapuzar · Artesanías Unzueta · Librería Urribe · Bar Xilulu



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Presuek etxera!

Lehengusu maittie:

Biherrien nenguan eta etxetik deittu ostiek; lehen urriñ ez, eta "beherau" eruhabiela: "Aitzol Huelvara eruen dabe!" esaostek amak, urduri eta larrittute.

Amorrue eta estuasune sentidijuaz neupe.

Horreek, heupe badakik, jente-modu eskasa dozak. Arrazoe geuk jekuau, baiña munduen dauen gauzaik miserialbientakue jekuau aurrez aurre, badakik; arerijo zikiñetan zikiñena. Ganera, oiñ benetan zer dan ageri-agerijen geratzen jabik munduen aurrien, eta horrek gehijau zitteldu jozak. Horretan, badakik, egurre betikuoi, euskaldunoi.

Ekaiñien 10 urte betekozak hor; barruen. Gaztetasune lapurtu guroie, baiña nik ondo ezautzaut eta bajakiat ez habiela makurraraziko. Geu bez, hor egongo gozak eta, biher danerako.

Bajakiat berez dekuala hik indderra, gureñe, barruen. Baiña, badaezpada, itxi begijek gabetan eta akordau hai zaparrotan eitten giñuzen sanjuan su erraldoiekaz eta uda guztijetan bernak jota urretute zelan ibiltten gintsuaz; pozik, libre. Bedar sikuen useiñe be helduko jak, ikusikok!

Estutu hagiñek eta ekiñ aurrera, laster ekarriko haugu hi eta beste danak be ta!

Bixotz-bixotzez gure haugu! Laster arte!

Antton Berrizbeitia Eguren

Klik batean @



Txakurren gorotzak

Iurretan N-634 errepidearen azpitik doan tunelean txakurren gorotzak sarritan aurkitu dituztela kritikatu dute hainbat iurretarrekin. Txakur baten ugazabak beste txakurren jabeentzako oharra ipini zuen, gorotzak jaso egin behar direla gogoraraziz.

Sei hankako mahaia

Juanjo Gastañazatorre PP



Aurrekontuak

Udal baten aurrekontuak dira kudeaketarako eta ekintzarako oinarri. Horiek barik, udalak norabide eta helbururik gabe gobernatzen du. Dagoeneko ekainean gaude eta Durangoko gobernu taldeak aurtengo kontuak aurkeztu berri dizkigu. Berandu datoz. Metaturiko atzerapenaren isla dira, adostasunik lortzeko gai izan ez den gobernu baten ondorio.

Udalerri orok legez, zorroztasuna oinarri duen aurrekontua behar du Durangok. Biztanleen beharrezkoen errealitatea islatuko duten kontu publikoen premia du. Hala ere, aurtun aurkeztu dizkiguten aurrekontuak dokumentu birtual bat baino ez dira, non kalkulatu diren diru sarrerek ez duten adierazten benetako aurreikuspenik.

Ezin dugu ukatu zenbait partidatan nabarmena izan dela beheakada, baina, esperientziak diosku, hilabeteetan zehar aurrekontu hau aldatzen joango dela. Horrela, urtero-urtero gertatzen den legez, kontu hauetara altxortegiaren iazko hondarrak batuko zaizkie, ez dugu zalantzarik, eta partida batzuk asko aldatuko dira. Eta horrek, duda barik, aurrekontu honek gaur agertzen duen soiltasun eta gastuak kontrolatzearen itxura ezabatuko du.

Baina, gure ustez, partida batzuk ezin dira ahanzturan erortzen utzi, eta are gutxiago zenbatekoa nahi duten beste txikiagotu. Langabeziaren aurkako borroka, Durangoko ekonomia jardueraren bultzadak edota etxebizitzaren sustapenak izan dira euren zenbatekoa gutxitzen ikusi duten ekimenetako batzuk eta, Alderdi Popularraren, ez gaude hori onartzeko prest.

2012 urte gogorra izaten ari da eta izango da guztiontzat, eta udaletxean gaudenon betebeharrak eta obligazioak da herrikideen beharrezkoak entzun eta arreta eskaintzea. Aurrekontuak gure asmoen aurpegia dira, eta Alderdi Popularraren argiak dira, diru gehiago arlo sozialerako, gazterentzako, etxebizitzarako eta promozio ekonomikorako. Horrelaxe proposatu genion gobernu taldeari.

*erredakzioan itzulia

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko ekainaren 1a
10. urtea - 460 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Ingurumena
2012



 anboto

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK

Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxe: 94 623 17 99

CEMOSA
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.



Montevideo kaleko asfalto berriak aire kutsadura erdira jaistera lortu du

Nitrogeno oxidoa hartu eta kutsatzen ez duen konposatu bihurtzen duen asfalto mota (Noxer) ipini zuten Montevideon duela urte bete; ordutik hona aire kalitatea neurtzen ibili da Azterlan, eta kutsadura %50 gutxitu dela diote jasotako datuek

Montevideo kaletik, egunean batz beste 5.000 ibilgailu pasatzen dira

Eguzkiak prozesuan duen eraginagatik, udan egon dira deskontaminazio daturik onenak

Durango erdialdean, Montevideo kaletik, egunean batz beste 5.000 ibilgailu pasatzen dira. Trafikoak eragiten duen kutsadura murrizteko, Noxer izeneko asfalto mota ipini zuten bertan duela urte bete. Asteon asfaltoak eduki duen eraginaren emaitzak eman dituzte: autoek isurtzen duten nitrogeno oxidoa %50 gutxitu da.

Titanio dioxidoa dauka asfalto berriak, eta konposatu horrek ibilgailuek isurtzen duten nitrogeno oxidoa egonkortzen du. Eguzkiaren erradiazioa dagoenean, asfaltoak nitrato-gatz bihurtzen ditu gas kutsakorrak, eta gatz hori ez da kaltegarria ingurumenerako. Euriagaz edo garbiketaren kamioiak botatako uragaz ezabatu egiten da. Nitrogeno oxidoagaz batera, ozono troposferikoa ere gutxitu du asfalto berriak.

Eguzkiak prozesu horretan guztian duen eraginagatik, udan erregistratu dituzte deskontaminazio daturik onenak.

Asfalto mota honekin esperientzia izan dute, besteak beste, Parisen, Nantesen eta Madrilen. Baina udal arduradunek azaldu

dutenez, hiri horietan ez dituzte airearen kalitatean izandako aldaketak neurtu.


Asfalto ipini aurretik eta ostean, airearen kalitatearen aldaketak neurtu dituzte Azterlan zentro teknologikoko beharginek. Gas kutsagarriak, partikulak eta ibilgailu-kopurua kontrolatzeko ekipamendua erabili dute kale horretako kutsadura neurtzeko.

Aire kalitatea hobetzen

Duela zazpi urte, 2005ean, aire kalitatea neurtzeko San Rokeko estazioak partikula-kopuru kezagarriak erakutsi zituen, eta 2007an nitrogeno dioxido kantitatea legeak ezartzen duen mugatik (40 ug/m³) oso hurbilzegoen. Urte hartan, lehen aldiz, ibilgailuek eragindako kutsadura industriak eragindakoa baino altuagoa izan zen.

Airearen kalitatearen datuak ikusita, Agenda 21etik Ekintza Plana eratzten hasi ziren partaidetza foro bidez, eta Montevideoko egitasmoa lako ekimenekin aire kalitatea hobetzea lortu dute. Azken datuen arabera, iaz, hamar egunetik bederatzitan aire kalitatea ona izan da. ■ A. U.

Aire kalitatearen eboluzioa azken bost urtetan



Hamar egunetik bederatzitan aire kalitatea ona izan da iaz





TAK21 sariketako finalera heldu da Durango

Datorren ekainaren 4an Busturiako Madariaga dorretxean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrien Tokiko Agenda 21 enkalitate baloratuko dute TAK21 izeneko sarien bidez.

Sari horiek lehenengo aldiz emango dituzte aurren, eta 47 udalerrik hartuko dute parte sariketan. Urrezko eta zilarrezko TAK21 sariak emango dizkiete Tokiko Agenda 21eko prozesuan emaitzarik onenak izan dituzten udalerriei. Eskualdeko herrietatik, Durango da saria lortzeko hautagai bakarra.

Tokiko agendak koordinatzen dituen Udalsarea 21ek sustatutako auditoritza sistema bategaz egingo dute udalerrietako planen ebaluazioa. Urrezko eta zilarrezko sariez gainera, Udalsarea 21ek 47 udalerriei diploma bat emango die, "kalitateagaz erakutsi duten konpromisoak eta begiruneak aitortua izatea merezi duelako".



"Partaidetza barik Agenda 21ek ez luke inolako zentzurik"

Aitor Larruzea Agenda 21eko teknikariak azken urteotan iraunkortasun arloan egindakoa baloratu du. TAK21 sarien hautagaitzan, herritarrek, udal teknikariek eta udal ordezkariak egindako lanari aitortza ikusten du.

Airearen kalitateak sortu zuen Durangon alarma gorria beregarria. Orain hamar egunetik bederatzitan aire kalitatea ona dela adierazi duzue. Orduetik, zelako beharra egin da?

Zorionez orain dugun aire kalitateak ez du zerikusirik 2004 eta 2005ean genuenarekin. Urte haietako datuek diagnostiko sakona egitera behartu gintuen, eta 2007an aire kalitatea hobetzeko plana onartu zen. Hainbat neurri jarri ziren martxan: enprestan kutsadurari buruzko inspektzio plan berezia, mugikortasun arloan autoak Durangon ez ibiltzeko hainbat neurri -Zumalakarregiko igorpen baxuko gunea, bidegorri sarea, asfalto ekologikoa...-, etxebizitzetan ingurumen irizpideak ezartzea...

Zeresangura dauka Durangorentzat TAK21 sariketako finalista izateak? Durangoko Agenda 21 bizirik dagoe-

la, eta gure parte-hartze sistema eta kudeaketagaz lortutako emaitzak baloratzen direla esan gura du. Ekintza plana lau urtetarako onartu zen, eta lau urteren buruan, ekintzen %90 bukatu da. Lan handia egin da udal kudea-

"Bigarren plana diseinatu behar dugu; datozen zortzi urteetarako"

ketan, -hiritarren arreta zerbitzua, informazio panelak...-, gizarte arloan -inmigratio plana, berdintasun plana, nagusiei zuzendutako ekintzak-, irisgarritasuna hobetzeko ekimenak...

Zeintzuk izango dira Agenda 21eko hurrengo erronkak? Bigarren ekintza plana diseinatu behar

dugu orain; datozen zortzi urteetarako plan estrategikoa izatea gura dugu. Hurrengo urteetan udalaren jardunetan jasangarritasuna lehentasuna izatea ekarriko du. Argi dago dugun egoerarekin arlo ekonomikoak eta sozialak pisu handia izango dutela hurrengo urteetan. Herritarrek ezarriko dituzte garatu beharreko erronkak.

Herritarren parte-hartzeak garrantzia daukala nabarmentzen duzue. Partaidetza barik Agenda 21ek ez luke inolako zentzurik izango. Kontuan hartu 2007an plana garatzeko 9 milioi euro aurreikusi genituela. Azkenean, 15 milioi inbertitu dira, eta inbertsio hori lortu ahal izateko herritarren partaidetza funtsezkoa izan da. Horregatik, orain arte parte hartu ez dutenei parte hartzera animatzea gustatuko litzaidake, Durango iraunkor bat lortzeko denok baitugu ahotsa.

Urrik gabe ez dago bizitarik.
Gure erronka berritzen jarraitzea da, ekosistemen garapen iraunkorra ahalbidetzeko eta bertan bizi diren pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko.

bizitza vida

Sin agua no hay vida.
Nuestro reto es continuar innovando para contribuir al desarrollo sostenible de los ecosistemas y a la mejora de la calidad de vida de las personas que los habitan.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.com

Hainbat ontzik birziklapenari buruzko informazioa eskaintzen dute, baina egoki irakurtzen jakin behar da

Birziklapenaren inguruko hainbat ikur ezezagunak egiten zaizkie askori. Hainbat ontzitan agertzen diren arren, esangura ezagutu ezik gaitza izango da behar bezala birziklatzea.

Nondik datoz ikurrak

Birziklatzearen jatorrizko sinboloa, 1970. urtean sortu zen. Container Corporation of America erakundeak Lurraren Eguna antolatuzuen lehenengoz. Diseinu lehiaketa bat martxan ipini zuten AEBetako ikasleen artean, eta Hego Kaliforniako ikasle batek irabazi zuen sariketa, Gary Andersonek. Ordutik, mundu osoan zabaldu den ikurra bihurtu da. gezi horiekin birziklatzeko prozesuaren pausoak azaltzen ditu.



Hobeto birziklatu: ezagutu sinboloak

PETE **PET**

PET edo PETE (polietileno teleftaltoa). Elikagaietzako eta edarientzako sarrien erabiltzen den plastiko mota da, arina izateaz gainera, ez delako garestia eta birziklatu egin daitekeelako. Behin birziklatuta berrerabili egin daiteke polietileno teleftaltoa: altzariak, alfonbrak, ohialgintzako zuntzak eta automobilen-tzako piezak egin ahal dira.

HDPE

HPDPE (dentsitate handiko polietilenoa). Aukera asko ematen dituen eta erresistentzia kimiko handia duenez, produktu kimiko industrialen edo etxe-ko garbigarrien ontziak egiteko erabiltzen da: xanpuen botilak, garbigarrienak, kloroarenak eta abar. Beste ontzi batzuk egiteko ere erabiltzen da: esnea, jogurtak, ura...

V **PVC**

Vedo PVC (binilikoak edo polibinil kloruroa). Oso sendoa denez oso erabilia da leiho garbigarrien eta bestelako garbigarrien ontzietarako: xanpu edo olio botilak, medikuntzarako ekipamenduak, eraikuntzarako materiala eta abar. Ez da sarritan birziklatzen. Zenbait toxina aska ditzake. Ez da erre behar eta ez zaio elikagaiak ukitzen utzi behar.

LDPE

LDPE (dentsitate txikiko polietilenoa). Plastiko sendo, malgu eta gardena da. Era askotako botila eta poltsatan aurki daiteke: erosketetakoak, izoztekoak, ogiarena eta abar. Zenbait altzari eta alfonbrak ere izaten dute. Birziklatu ostean, edukiontzi eta paperontzietan berrerabili ahal da, gutunazaletan, paneletan, hodieta eta baldosetan.

PP

PP (polipropilenoa). Fusio puntua oso altua duenez, likido eta elikagai beroak eramateko ontzietan erabiltzen da. Medikuntzako ontziak egiteko ere erabiltzen dute: jogurt ontziak, edateko lastoak, ketchup poteak, tapak eta sukaldeko zenbait edukiontzi, besteak beste. Birziklatu ondoren argi seinaleak egiteko erabiltzen da, bateria kableak eta abar.

PS

PS (poliestirenoa). Erabili eta botatzeko plateretan eta edalontzietan erabiltzen da, arrain ontzietan, haragi erretiletan, aspirina ontzietan, CD kaxetan... Fusio puntu apala du, eta beroarekin urtu egin daiteke. Zenbait erakunde ekologistek diotenez, zaila da material hori berrerabiltzea, eta toxinak isuri ahal ditu.

OTHER

Beste batzuk. Atal honetan nekez birziklatu ahal diren hainbat plastiko mota sailkatzen dituzte. Produktu mota ugari sartu ahal dira atal honetan: ur botila jakin batzuk egiten dira, balen kontrako materialak ere bai, DVDak, eguzkitarako betaurrekoak, MP3 soinu-aparailuak, zenbait elikagai ontzi, eta abar luze bat.

Ontzi batek puntu berdea badarama, ontziaren ardura duen enpresak egoki betetzen duela Hondakinen Legea esan gura du. Hau da, enpresa horrek bermatu egiten du ontzi hori hondakin bihurtzen denean birziklatu edo balioztatu egingo dela. Hontzi hondakinak birziklatzeko Sistema Integratuaren bidez egiten da.

Möbiusen eraztuna edo zirkulua oso ezaguna da nazioartean, horixe bihurtu baita birziklatzearen ikur. Eraztuna bera bakarrik agertzen denean, esan nahi du ontzi hori birziklatzeko moduko materialekin eginda dagoela. Zirkulu baten barruan badago, produktu horren material batzuk aurretik birziklatu egin dituztela.

Möbiusen ikurraren barruan ehunekoetan agertzen den kopuruak zera adierazten dio kontsumitzaileari: osotara hartuta zenbat den material birziklatua, enpresa fabrikatzaileak ontzi horren osaketarako erabili duena. Datu hori sarri askotan kartoizko ontzi eta kaxetan agertzen da.

Tidyman (gizon txukuna) esaten zaion sinboloa ere sarritan agertzen da. Gizaki baten irudia da, hondakin bat paperontzira botatzen. Ikur horrekin kontsumitzaileari adierazi nahi zaio bere ardurara dela hondakin hori leku egokian uztea. Birziklatzeko irizpideak jarraituz, dagokion edukiontzira bota beharko da.

Kristalezko botilan ikus daiteke eraztuna eta ontzi bat edukiontzian uzten ari den pertsona. Horrela, kontsumitzaileari gogoratu gura diote edukiontzia berdeetara eramane behar den ontzia dela esku artean duena.

@anbotokirola

KIROLAK >

Tropelean, izar bakarra faltan

Emakumeen Biran, UCIren sailkapeneko hamar hoberenen artetik bederatzi ariko dira



Emakumeen Birako antolatzaileak eta babesleak martitzenean lurretan egindako aurkezpenean. Zalao Fuertes

Emakumeen Birako 25. urteurrenean, antolatzeko baliabideak aurkitu izana da nobedade nagusia. Gerrikoa estutu behar izan dute, babesle gutxiago dituztelako. Aurreko urteetako aurkezpen ekitaldian lurretako udalbatzarreko aulki gehienak bete zituzten babesleek. Aurten, hainbat aulki hutsik geratu dira: Oraindino babesten jarraitu duten enpresa eta udal guztiei eskerrak eman dizkie Agus Ruizek, Birako antolatzaileak.

Hala ere, nabarmendu dute, krisiak ez dio Birako parte-hartzaileen mailari eragingo. Urtero legez, munduko txirrindulari onenak ibiliko dira elastiko

Marianne Vos izango da falta den bakarra, klabikula apurtu zuelako

Eneritz Iturriaga abadiñarra Lointek taldeagaz ariko da

horiaren bila. UCIren sailkapeneko aurreneko hamarren artetik Marianne Vos nederlandarra izango da falta den bakarra, joan zen asteburuko lasterketa batean klabikula apurtu zuelako. "Onena faltako da. Alde batetik pena da, baina bestetik, lasterketa orekatuagoa izatea eragingo du". Izan ere, Vos beste guztiak baino koska bat gorago dago: "Erori, berriro bizikleta gainera igo eta hala ere lasterketa bigarren amaitzea lortu zuen".

Beraz, faboritotzat Judith Arndt, Emma Johansson eta Nicole Cooke azpimarratu daitzke, beste batzuen artetik. Eneritz Iturriaga abadiñarra Lointek taldeagaz ariko da. Taldeei dagokionez, Bizkaia-Durango izango da Durangaldeko ordezkaria.

Iazkoa baino "leunagoa"
Ekainaren 7tik 10era jokatu da Emakumeen Bira eta lau etapek osatuko dute. Egutegi estuak eraginda, aurtengo aldian iazkoa baino "leunagoa" dela onartu du Ruizek: "Ekainaren amaieran Giroa [emakumeena] hasiko da eta uztaileko Joko Olimpikoak ere laster datoz. Hori

Eta bi Durangaldean amaituko dira: Abadiñon eta lurretan

guztia kontuan hartu dugu ibilbidea osatzerakoan". Eta bi Durangaldean amaituko dira: lehenengo etapa Abadiñon, eta azkena lurretan.

Gainera, aurtengo lasterketak normalean baino etapa bat



- Eneritz Iturriaga
- 31 urte, Abadiño
- Lointek taldea

Iazkoa Emakumeen Bira 21. postuan amaitu zuen Eneritz Iturriagak. Marianne Vos lesionatuta dagoenez, aurtengo faboritoen zerrenda zabaldu egin dela uste du.

"Euskaldun onenaren maillota lortzea dut helburu"

Zeintzuk dira helburuak aurtengo Emakumeen Biran?

Ez du uste iaz bezain ondo heldu naizenik. Taldearentzako beti garrantzitsua izaten da podium bat lortzea eta euskaldun onenaren maillota irabazten saiatuko naiz.

Iazko irabazleak ez du parte hartuko.

Horregatik lasterketa irekiagoa izango dela uste dut. Dena dela, bere taldekide Annemiek Van Vleuten oso maila onean dabil eta irabazteko faborito ikusten dut. Judith Arndt ere borroka horretan egongo da.

Zilarrezko ezteiak egingo ditu Birak.

Krisi sasoian Bira antolaten jarraitzea oso albiste ona da. Bestela begiratu zer gertatu den Valladoliden jokatzeko zen munduko kopagaz: bertan behera geratu da. Goraipatzeko moduko lana egiten dute Birako antolatzaileek.

Espainiako Kopan lider zaude. Lau etapa joan dira eta bi falta dira. Alde polita dut bigarrenarekiko. Ez nuen lasterketa denetan parte hartzeko asmorik, baina lider nagoenez azken arte defendatuko dut.

ETAPAK

1- IURRETA-ABADIÑO
Noiz: ekainak 7, eguena
Luzera: 97,1 km
Mendateak:
- Astoreka, 3. mailakoa

2- LEKEITIO-LEKEITIO
Noiz: ekainak 8, barikua
Luzera: 97,8 km
Mendateak:
- Milloi, 3. mailakoa.
Birritan igoko dute, bakloitzean alde batetik
- Lekoitz, 2. mailakoa.

3- URDUÑA-URDUÑA
Noiz: ekainak 9, zapatua
Luzera: 13,4 km (erlojupekoa)
Mendateak:
- Mendaterik ez, baina ibilbide gorabeheratsua

4- URDUÑA-IURRETA
Noiz: ekainak 10, domeka
Luzera: 116 km
Mendateak:
- Zumeltza, 2. mailakoa
- Urkiola, 3. mailakoa (Otxandiotik etorrira)
- Duña Gane, 2. mailakoa

gutxiago izango du: larunbateko jardunaldia sektore bik osatzen zuten normalean, baina aurten goizeko erlojupekoa mantendu eta arratsaldeko lasterketa kendu dute, Ruizek azaldu duenez. "Txirrindulariengatik eta euren taldeengatik hartu dugu erabaki hori. Bizikleta moldatu beharra, bazkaldu eta segituan lehiatu beharra... Hainbat eragozpen zituen sektore biko jardunaldiak eta erlojupekoagaz bakarrik dena erosoagoa izango delakoa gaude". ■ J. Derteano

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

El Premio del DECIMOCUARTO CONCURSO MUNDIAL DE MORELLAS BIZKAIKO OROLOTZEN MENDEKO BAKARRIKO GANADORE del mundo, año 1974 de ODOLOSTETAN GAILEN - 2009 Eminencia en la elaboración de Morellas Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatuak

Kirolean euskara bultzatu guran, spinning maratoia

Domekan hiru orduz ariko dira Ezkurdi 150 parte-hartzaile inguru



lazko Bizieuskaraz spinning maratoia, Ezkurdi plazan.

Bizieuskaraz II. Spinning Maratoia egingo dute domekan, ITG Elkartek antolatuta. Bigarren edizioak ere kirolean euskararen erabilera sustatzea du helburu. Iaz, Ezkurdi plazan atondutako 150 bizikletak bete zituzten, eta aurten ere bide beretik joan da izen-ematea. Guztira, 135 lagunek eman dute izena ekimenerako. Gainerako hamabost plazak egunean bertan izena ematen dutenen artean banatuko dituztela argitu dute.

lazko edizioan lehia antolatu zuten maratoian. Aurten lehia-

keta kendu eta izaera herrikoia eman diote. Beraz, hiru orduko saioaren ostean ez da irabazle bakar bat egongo; parte hartu duten guztien artean banatu gura dituzte merituak, eta sariak zozkatu egingo dituzte.

Hauek dira sariak: bi lagunentzako bazkari bat Txantonsa jatetxean; bi lagunentzako afari bat Astei jatetxean; autoaren olio eta filtro aldaketa; euskarazko ikuskizun birezako sarrerak San Agustin kulturgunean; eta bizikletan ibiltzeko ekipamendu bat.

Parte hartzaile guztiei ekimenako toalla bat ere emango diete. Eguraldi txarra egiten badu Merkatu plazara tokialdatuko dute ekimena. ■ J. D.

EGITARAUA

09:15etik 10:15era:

- Parte-hartzaileen zerrenda baieztatu eta falta diren bizikletak adjudikatu

10:30ean:

- Maratoia hasi

13:30ean:

- Maratoia amaitu

* Aldagelak eta duxak egongo dira parte-hartzaileentzat

Maria Bazan judoka, Euskadiko txapelkun

Duela bi aste, durangarrak bosgarren postua lortu zuen Espainiako txapelketan

Maria Bazan judoka durangarrak maila bikaina erakutsi du azken bi asteetan. Duela hamabost egun jokaturako Espainiako txapelketan bosgarren postuan geratu zen. Finalerdietara arte borrokaldi guztiak irabazi zituen,

baina ezin izan zuen finalera pasatu. Durango Judo taldeko arduradunek diote kontzentrazio falta igarri zuela, kanporaketari itxaroten egon beharagatik. Hala ere, durangar batek Espainiako txapelketan inoiz lortutako

marka onena da Bazanena. Joan zen astean ospatutako Euskadikoan, ostera, txapela jantzi zuen.

Durango Judo, goraka

Eneko Diez ere dominagaz bueltatu zen Eibarren (Gipuzkoa) jokaturako Euskadiko txapelketatik. Bigarren sailkatuta, zilarrrezko domina jantzi zuen. Durango Judo taldekoek diote maila altuko lehia izan zela, eta Diezek Euskadiko elite horretan parte hartu dezakeela aurrerantzean ere. Taldea, orokorrean, goraka doala uste dute. ■ M. O.

ADITUAREN TXOKOA

Iker Saenz de la Cuesta
Areto futbol entrenatzailea



Kongresua Bastidan

Denboraldia bukatu da gure taldeentzat, eta datorren denboraldiari begira planifikazio lanak egiteko garaia hasten da orain. Baina ezin da alde batean utzi entrenatzaileen eta jokalarien formazioa, eta horretarako aukera polita dugu ANEFSEk (areto futboleko entrenatzaileen Espainiako elkarteak) aurten Arabako Bastida herrian antolatu duen Espainiako Futbol Kongresuan.

Kongresu horrek XIV. aldia egingo du aurten, eta ANEFS Euskadi elkartearen, Labastida Atenea areto futbol klubaren eta Bastidako Udalaren laguntzagaz antolatu dute. Lehenengo mailako areto futboleko jakintza gure lurraldeetara hurbiltzea dute helburu. Kongresua ekainaren 29an hasiko da, eta hiru egun iraungo du.

Kongresurako izena eman dutenek azalpen interesgarriak entzungo dituzte, hizlariak primerakoak direlako. Hona hemen beren ezagutza partekatuko dutenen zerrenda: Jesus Velasco, Caja Segovia taldeko entrenatzailea; Pep Marti Sant Cugat CAREko psikologoa; David Ramos, Puertollano taldeko entrenatzailea; Diego Rios, Azkar Lugo taldeko entrenatzailea; Imanol Ibarrodo, Incoadeko presidentea; Duda, Pozo Murcia taldeko entrenatzailea; Victor Acosta, Ribera taldeko entrenatzailea, eta Sito Rivera, Errumaniako selekzioko hautatzailea.

Gainera, kongresu honek areto futbola maite duten beste kideekin solasaldi politikak edukitzeko aukera ematen digu. Aurten afari bi antolatu dituzte ekimenaren bultzan. Kongresuari buruz gehiago jakin nahi duenak, www.anefs.es webgunean aurkituko du informazioa.

Durangaldea ordezkari barik herri artekoan

Bizkaiko Herri Arteko pilota txapelketatik kanporatu dituzte Mallabia eta Atxondo. Beraz, ez da Durangaldea ordezkari heldu final laurdenetara.

Atxondok lan handia eman zizkion Arrankudiagari. Hiruna partidu irabazi zituen herri bakoitzak eta tanto kopuruan izandako aldeagatik sailkatu zen Arrankudiaga. Mallabiak, aldiz, kadeteetako partidua bakarrik irabazi zion Zornotzari.

Bestalde, zesta modalitateari dagokion finala jokatu dute Markinak eta Berriatuak, zapatuan, 11:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. ■ J. D.

Marizkurrena eta Diezek final bi asteburuan

Atxondoko pilota eskolan dabilzan Ane Diez eta Maia Marizkurrenak Euskadiko txapelketako final bi jokatu dituzte asteburuan gaztetxo mailan. Zapatuan, 10:30ean, paleta gomako finala jokatu dute Ermuan. Domeka goizean, aldiz, esku pilotako txapelaren bila joango dira Eibarko Astelena pilotalekura.

Bestalde, joan zen asteburuan Durangaldea pilotako txapelketan (B2 mailatan) finalak jokatu zituzten gaztetxo mailan eta Durango, lurreta eta Elorrio izan ziren irabazleak. Oro har, nahiko erraz atera zituzten finalak aurrera. ■ J. D.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

PODOLOGIA 188. EKARGOKIDEA



Izan zaitez
berrialaguna

zure ziztada behar dugu

MARTXELO OTAMENDIren hitzaldia Durangon

Ekainak 6, asteazkena
Arratsaldeko 8-etan
Plateruenan



Euskarazko hedabideen etorkizuna gure esku dago. Geuk eutsi beharko diegu. Geureak direlako, bai eskualdekoak bai BERRIA.

Zuk ere ezagutu behar duzu zein egoeratan den BERRIaren proiektua: Arrisku larrian dago. Laguntza eske da etorkizunari indartsu heltzeko ez ezik, bizirik irauteko.



berria^{info}

Informazio eguneratua eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

Quad zaleen topagune bihurtuko da Abadiño

Nazioarteko IV. Openeko probak egingo dituzte Traña-Matienan



Quad txapelketako modalitate batean abilezia probei aurre egin beharko diete parte-hartzaileek.

Sapubike MTB martxa lehenengoz Durangon

Uztailaren 1eko martxagaz Durangok alor horretan duen hutsunea bete gura dute

Sapubike txirrindularitza klubak izen bereko mountain bike martxa antolatu du lehenengoz uztailaren 1erako. "Eskualdeko herri gehienek mota horretako martxak edo lasterketak dituzte eta Durangon alor horretan dagoen hutsunea bete gura dugu ekintza honekin", azaldu du klubeko kide Iker Sagarduik. Izen-ematea hasita dago www.sapubike.com webgunean eta 10 euro kobratuko dute.

Durangoko Tabira auzoko San Pedro jaien barruan antolatu dute ekimena. Martxa ez da lehiakorra izango eta bizikletaz gozatzeko aukera eskaintzea izango da asmo bakarra. Ibilbide bi prestatu dituzte: 35 eta 25 kilometrokoak. Durango, Izurtza

eta lurretatik ibiliko dira, besteak beste. Tabiran hasiko dute martxa 09:00etan eta bertan egongo da helmuga ere.

Martxan parte hartzeko baldintza bakarra hamalau urte baino gehiago edukitzea da. Parte-hartzaile guztiei martxako kamiseta oparituko diete antolatzaileek, eta baita beste hainbat gauzagaz betetako poltsatxo ere: bizikletentzako ur-botila, dortsala, Durangoko Turismo sailaren eskuorriak... ■ J.D.

Ibilbide bi prestatu dituzte: 35 eta 25 kilometrokoak

Txirrindularitza eskolen bileran 250 gaztetxo

Durangoko txirrindulari elkar-teak Bizkaiko txirrindularitza eskolen topaketa antolatu du domekarako, 10:30ean, Durangoko Hiper Simply supermerkatuaren alboan. Guztira 250 gaztetxo batzea itxaroten dute antolatzaileek. Eskualdeko taldeei dagokionez, Durangoko Gandarias Interiorismo taldeak maila gutxietan parte hartuko du.

Adin tarteen arabera banatu, eta proba bi egingo dituzte. Lehenengoan 1,2 kilometroko zirkuituari aurre egin beharko diete txirrindulari gazteek. Montorretas inguruan dagoen industriagunean antolatuko dute zirkuitua. Bigarrena gymkana bat izango da eta txirrindulariek euren abilezia erakusteko aukera izango dute. ■ J.D.

Zapatuan eta domekan quad ibilgailuak izango dira protagonistak Abadiñoako Traña-Matienan auzoan. Inyectametal enpresaren atzealdeko zelaian egokitutako zirkuituan Nazioarteko IV. Opena jokatu da. Urtero legez, txapelketa horren inguruan beste hainbat ekintza ere antolatu ditu Endu-Quadek, Abadiñoako motor klubak.

Txapelketa maila bitan bereiztu dute: profesionalena eta afizionatuena. Era berean, maila bakoitza modalitate bitan banatu dute: quad-krossa (abiadura lasterketa) eta country-krossa (abilezia txapelketa).

Quad zaleak domekan Durangaldeko hainbat menditatik ibiliko dira

Profesionalen proba, lehenengoz, Gaztela eta Leongo txapelketarako puntuagarria izango da. Gaztela eta Leongo quad federazioak antolatzen du baina "hainbat euskaldunek ere parte hartzen dute", Alberto Moran Endu-Quad klubeko ordezkariak adierazi duenez. Txapelketa

horretan ariko direnen artean, izen bi nabarmendu dituzte: Quique Pardo Espainiako txapeliduna eta Antxon Jauregi gazte zornotzarra.

Txapelketa ofizialaz gainera, beste hainbat ekintza ere prestatu dituzte jai giroa herrira zein eskualdera zabaltzeko. Esaterako, zapatu goizean erdi aroko azoka egingo dute Trañaetxoste kalean eta artisautzari lotutako askotariko produktuak salduko dituzte. Horrez gainera, Traña-Matienan batzen diren quad zaleak domekan Durangaldeko hainbat menditatik ibiliko dira. Iaz 150 lagun inguru batu zituen ibilbideak. ■ J. D.

EGITARAUUA

EKAINAK 2, ZAPATUA

10:00: erdi aroko azoka irekiko dute

10:00-14:00: sailkapen probak

14:00-16:00: bazkaria

16:00-20:00: finalak

22:00-04:00: musika

EKAINAK 3, DOMEKA

09:00-13:00: quad ibilbidea Durangaldetik

10:00: erdi aroko azoka irekiko dute

11:00-14:00: 4X4 ibilgailuen erakustaldia

Ohorezko mailara igo dira Kultureko gazteak

Maila gorenean talde golegileena izan da

Fubolean Maila gorenetik Ohorezko mailara igotzea lortu du Durangoko Kultural gazteen taldeak. Ligako azken jardunaldian 2-8 menderatu zuten Erandio. Kultural mailako talderik golegileena izan da: 92 gol sartu dituzte 30 partidutan. Horrez gainera, golik gutxien

jaso duten hirugarren taldea ere izan dira, eurekin batera mailaz igoko diren Balmaseda eta Gernika Bren atzetik.

Bestalde, Kultureko B kadeteen taldeak Maila goreneko liga irabazi du. Talderik golegileena izan dira eta etxean ez dute partidurik galdu. ■ J.D.



e t x e a
i a t
i a t
e t x e a

PLATERUENA

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA. Landako etorbidea, 4 A.
- 48200 Durango. Jatebeka: 946030300

Jatetxe gida



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

Gremioen gida

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Televés
Instalazioak
Ofiziala

Panasonic

AROTZERIA

EGUIA s.l.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industriaidea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombra

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.ul@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Mallabiena

M.Z.O.ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LORAZAINTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com





Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

auzorik auzo AISIALDIA >



Oizen mendi-hegalean, giro lasai eta baketsuaren santutegia da Andikona

Berrizko Andikona auzoko txoko guztiek eskaintzen dute aukera birrikak oxigeno garbiz eta bihotza bizipozez betetzeko; besteak beste, Andra Mariko santutegia bisitatu daiteke, 1949an eraberritua

Arratsalde pasa atseginagorik proposatzea ez da erraza. Oiz mendi-magalean, gorune zabal eta pribilegiatuan kokatuta dago Berrizko Andikona auzoa. Lasaitasuna, atsedena eta bakea iradokitzen dizkio pasiatzen dabilenari.

Igo beharra dago, bai; baina merezi du. Autoan joateko tentazioa baztertu eta tipitapa patxadan joatea da inguruagaz gozatzeko erarik onena. Abadiñotik abiatu eta Berrizko Sarria auzotik pasatuta, hamar bat minutuko igoeraren ostean heldu daiteke Andikonara. Heldu eta segituan, behetik gorako begiradak Andra Mariko santutegiaren ikuspegi garbia uzten digu. Andikonako santutegia gure ondareko altxor txikitat hartzen da. Eraikina 1520koa da, estilo gotikoa. XVI. mendeko santutegi eta antzerako eraikinen bidea jarraituz, neurri aldetik oso armoniatsua da.

Zaharberritze lanak, 1949an

Santutegiaren nabea hiru tartekoa da, buruan sakristia bat dago eta, hegoaldeko alboan, atari bat ikus daiteke. Landa eremuko tenpluetan ohikoa zen bezala, hark ez du dorrerik, kanpai-horma bat baizik. Oinetan koru altua

dago, Berrizko San Joan Ebanjelariaren erreplica apala. Barruan erretaula barrokoa nabarmentzen da. Dena dela, Andikonak duen guztia ez da sasoi hartakoa. Izan ere, 1949an zaharberritu egin zuten eta harrez gero aurpegi eraberritua erakusten dio munduari.

Historia aberatsa du santutegiak, baina inguruko paisaiaren aberastasuna ez da

makalagoa. Zuhaitz hostotsuek itzala ematen dioten belardi txikia sasoi bateko pilotalekuko arrastoen ondoan dago. Inguruan idi probetarako harri bat ere ikus daiteke, lasai asko pausatuta, inorako presa barik. Auzogunetik aurrera joanda, Berrizerako noranzkoan, hainbat baserri gune ikus daitezke ezker-eskuin. Durangaldea txiki eta eskura ikusten da handik goitik.



Andikona santutegia gure ondareko altxor txikitat hartzen da. Eraikina 1520koa da

Historia aberatsa du santutegiak, baina inguruko paisaiaren aberastasuna ez da makalagoa

Santutegiaren nabea hiru tartekoa da, buruan sakristia bat du eta alboan ataria



AGENDA >

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Ekainaren 2an, 19:30ean, Abadiñoeko Errota kultur etxean

ABESTI FEMINISTAK

Silvia Palumbo kantautore eta ekintzaile feminista argentinarra, emakumeen egoerari buruz berak idatzitako kantuak eta beste egile batzuenak eskainiko ditu Abadiñon. Violeta Parra edo Consuelo Velázquez-enak, adibidez. *Página en blanco para coro desesperado* bideoa ere emango dute, sexu esplotazioa salatzen duena.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> Ekainaren 8an, Malas Compañías taldearen **Orsai**, 18:30ean, Olakueta plazan.

DURANGO

>> Ekainaren 1ean, Trastada Teatro taldearen **Un loco de desatar (las paradojas de El Cósmico)**, 22:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

>> Ekainaren 1ean, Dejabu Panpin Laborategia taldearen **Gure bide galduek**, 22:00etan, Arriola antzokian.

BERBALDIA

DURANGO

>> Ekainaren 6an, **Berrialaguna**, 20:00etan, Plateruenean. Martxelo Otamendi.

ELORRIO

>> Ekainaren 1ean, **Bioeraikuntza. Etxean energia berriztagarriak nola erabili.** Iturri kultur etxean, 19:00etan. Aste Berdea.

>> Ekainaren 2an, **Elorrioko baso jabetzentzako kudeaketa aukerak.** Iturri kultur etxean, 11:00etan. Aste Berdea.

BISITA GIDATUA

ELORRIO

>> Ekainaren 5ean eta 6an, **Berbalagunek** antolaturiko bisita gidatua. Ekainaren 5ean (18:00), eta ekainaren 6an (10:00). Izena emateko: durangaldea@aek.org edo 639 400 786.

DANTZA

DURANGO

>> Ekainaren 8an, Aukeran Dantza Taldearen **Burnia**, 22:00etan, San Agustín kulturgunean.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> Ekainaren 15era arte, **zeramika lanak**, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Ekainaren 3ra arte, **Eskolarteko pintura lehiaketako lanak**, Ezkurdi aretoan.

>> Ekainaren 7ra arte, **10 gazte afrikarren begiradak Durangon**. San Agustinen.

>> Ekainaren 24ra arte, Federico Clavarinoren **Ukraina passport**, Arte eta Historia Musean. Begira argazki jaialdia.

>> Uztaillaren 15era arte, El Trapiche argazki taldearen **Hexápoda**, Arte eta Historia Musean. Begira jaialdia.

JOKOAK

DURANGO

>> Ekainaren 7an, Euskal Astearen barruan San Jose Jesuitak ikastetxeak antolaturiko **Artzainen jolasak**, 09:30ean, Andra Mariako elizpean.

LEHIAKETA

IURRETA

>> Ekainaren 22ra arte, San Migel jaiak iragartzeko **kartel lehiaketa**. Luma papelean inprimaturik eta CD batean aurkeztu behar dira lanak, Ibarretxe kultur etxean.

MUSIKA

ABADIÑO

>> Ekainaren 2an, **Silvia Palumbo** 19:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ

>> Ekainaren 1ean, **Musika jaialdia**, 21:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Ekainaren 1ean, **Tres Notas Project** (jazz, hip-hop, funk) 20:30ean, Kurutziaga hotolean.

>> Ekainaren 1ean, **Berri Txarrak**, *Haría* diskoa aurkezten, 22:00etan, Plateruenean.

>> Ekainaren 2an, **Durango Hiria** lehiaketan saritutako lanen eta Gasteizko Folklore Akademiako musikarien kontzertua, 20:00etan, San Agustinen. Euskal Astea.

TAILERRA

DURANGO

>> Ekainaren 16an eta 17an, Begira jaialdiaren barruan, Oscar Molinak gidatuko duen **Detrás de la cámara** tailerra. Izena emateko, ekainaren 15era arte, 658 70 82 64 tel. zbk. edo info@begiraphoto.com.

TXAPELKETA

BERRIZ

>> Ekainaren 7an, Berbalagunek antolatuta, **bolo txapelketa**, 19:00etan, bolatokian. Txapelketaren ostean, afari merienda, trikitalariek alaituta.

ZINEMA

DURANGO

>> Ekainaren 5ean, Euskal Astearen barruan Kurutziaga ikastolak antolatu duen urmeentzako zinema emanaldia: **Katu bat Parisen**, 09:15ean, Zugaza zinema aretoan.

>> Ekainaren 6an, Euskal Astearen barruan Alpino Mendi Taldeak antolatu duen emanaldia: Alex Txikonen **Next time Inshallah**, 20:00etan, San Agustinen.

>> Ekainaren 8an, Jon Maiaren **Gazta zati bat**, 22:00etan, Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Blancanieves. La leyenda del cazador

Zuzendaria: *Rupert Sanders*
barikua 1: 19:00/22:00
zapateria 2: 19:30/22:30
domeka 3: 19:30/22:30
astelehena 4: 19:00/22:00
martitzena 5: 20:00

Gartxot

Zuzendaria: *Asisko Urmeneta*
eta *Juanjo Elordi*
zapateria 2: 17:00
domeka 3: 17:00

Musikala HDan

Company

eguna 7: 20:00

ELORRIO

Arriola

Gartxot

Zuzendaria: *Asisko Urmeneta*
eta *Juanjo Elordi*
zapateria 2: 19:00 (zuzendarien hitzaldia eta emanaldia)
astelehena 4: 20:00

Gazta zati bat

Zuzendaria: *Jon Maia*
domeka 3: 19:30 (dokumentalaren proiektzioa eta hitzaldia)

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Los diarios del ron

Zuzendaria: *Bruce Robinson*
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:00

EKAINEN AGENDA		HURRETA ELIZATEKO UDOKA	
1	ERAKUSKETA - 11:00-12:00 eta 17:30-20:00 eskulanak, egur-lanketa, argazkigintza, pintura,..., K.E.n		
	IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA 08:00 Hainbat ibilbide (85-143)	2,3,9,10	
2	KIROLARI ATEAK ZABALDU Martxa zikloturista, eskola krossa, moto martxa, mendi ibilbidea, esku pilota, BTT ibilbidea		
	Bidebarrietako udal bulegoetan teknikari bat egongo da tramitazio telematikoen erabilera azaltzeko	ekainak 6tik uztaillak 1ra	
7	IURRETAKO UDALA 09:00 Iurretako Kale Azoka		
	XXV. EMAKUMEEN BIRA - Etapak Iurretako-Matiena / Lekeito / Orduña / Orduña-Iurretako	7,8,9,10	
12,13	HERRI BIBLIOTEKA 12an, 18:30 "Alrededor de tu cuello" 13an, 19:00 "Herói herói"		
	IT TXARTELA 11:00etatik 13:00etara Iurretako KZgunean	13	
14	IBARRETXE KULTUR ETXEA 18:00 Tramitazio telematikoen ikastaroa.	Izen ematea 11 baino lehen	
	GEREDIAGA ELKARTEA IBARRETXE K.E.n 19:30 Mahai ingurua "Dantza autoktonoen ezbaiko egoera"	15	



Ekainaren 8an, 18:30ean, Berrizko Olakueta plazan

ORSAI

Egunerokotasuneko objektu nahiz ekintza sinpleei beste zentzu bat ematen diete *Orsai* obragaz Malas Compañías taldekoek. Irudimena, jolasa, akrobaziak eta esku-jolasak baliatzen dituzte, eta bidaia ikusgarri batean parte hartzera gonbidatzen dute ikusleagoa. Adin guztietako publikoarentzako da kale antzezlan hau. Berrizko Olakueta plazan eskainiko dute, ekainaren 8an.



Karmelok **Mariani**: baldin badakit zu zarella, eta baldin badakizu ni naizela, nork jakingo du nor naizen ni zu ez zaudenean. Zorionak familiaren partez!



Aitziber Murgoiitoibeñak bihar urteak betetzen ditu. Ondo pasatu! Gogoratu laster argazkian bezala egongo zarela! Zorionak denon partez!



Zorionak **Ekain!** Eguaztenean zure lehenengo urtebetetzea ospatu zeuen! Musu handi bat Aramaixotik! Amaier eta Uxue.



Gure printzesak eguaztenean, maiatzaren 30an, 8 urte bete zituen. Zorionak eta musu potolo bat etxeko guztion partez!



Bihar *en alegre biribilketa* ibiliko gara Durangon **Olatzen** urteguna ospatzen. Ia indarrak geratzen zaigun Gorbearako! Zorionak potxola!



Argazkiko bi mutiko hauek, **Ander** eta **Matias**, atzo, maiatzaren 31n urteak bete zituzten. Zorionak Matienako peñaren partez! Ez apurtu larregi...



Junek maiatzaren 20an lehen jauntzea egin zuen eta maiatzaren 30ean 10 urte bete zituen. Zorionak Abadiñotik, gurasoen eta Paulen partez!



Paulek apirilaren 25ean 7 urtetxo bete zituen. Zorionak Berrizko familiaren partez! Musu handi bat gurasoen eta Juneren partez!



Zorionak **Beatrizeri!** Hamabostero zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.



Durangaldeko Bizidun elkarte eta 'Klabes' ikastaroko lagunak Araban izan dira egun-pasa: Ollerias, Salinas de Añana, Angosto eta Gasteizko katedrala bisitatu dituzte. Egun zoragarria izan zen! Etxera beste baterako gogoz bueltatu dira.



Mirentxin ondo ibili Txiletik eta zorte on bioi! Musu handi bat zure lagun guztien partez eta laster arte!

ESKELAK



ESKERRAK EMOTEA eta URTEKERA-MEZEA
JESUSA BARRUETA BARRUTIA andrea

(Hilario Dunabeitia Maiztegiren alarguna)

-Goian bego-



Durangon hil zan, 2012ko maiatzaren 25ean, 85 urte zituala Senitartekook eskerrak emon gura deusueguz doluminak agertu eta haren arimearen aldeko hiletan lagun izan zaituegun guztioi. Jakin eragin gura deusuegu urtekera-mezea datorren domekan izango dala, bagilaren 3an, Andra Mari Urbarrikoaren basilikan, 12:00etan.

BOTIKAK >

- Barikua, 1**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo 4 - Abadiño)
- Zapatua, 2**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
09:00-13:30
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Domeka, 3**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale, 6, Durango)
- Astelehena, 4**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Martitzena, 5**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- Eguaztena, 6**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J. A. Abasolo 2 -Durango)
- Eguena, 7**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño94 681 44 70
Matiena606 45 99 88
Durango Geltokia94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40
J.L. Uriarte670 40 20 02
I. Estebez670 67 82 73
M Galeano670 40 93 30
lurreta94 620 15 65
Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz.....94 682 45 84
Durango.....94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz.....94 682 40 36
Durango.....94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

- 17 **36°** BARIKUA ☁️
16 **31°** ZAPATUA 🌧️
15 **28°** DOMEKA ☁️
16 **31°** ASTELEHENA ☁️
18 **32°** MARTITZENA ☀️

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) -
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro
Porruak..... 1,80 euro/tx
Kalabaza..... 2,20 euro/kg
Azenarioak..... 1,50 euro/tx
Azalgak..... 2 euro/kg
Bruselazak..... 3 euro/kg
Espinakak..... 1,50 euro/tx
Indabak..... 15 euro/kg
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
Espeltazko ogia..... 3,60 euro

argazki lehiaketa



2013



Durangaldeko egutegia 2012

anboto
komunikabideak



oinarriak

1. Parte-hartzaileak: 16 urtetik gorakoak

2. Gaia: "12 hile, 12 herri"

Durangaldeko 12 herrien argazkiekin osatu gura dugu egutegia hile bakoitzean herri bakoitzekoa jartzeko.

3. Berezitasunak: argazkiak kamera digital batekin egin beharko dira eta ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- JPG formatuan bidaliko dira.

- Argazki bakoitzak 4000x2800 pixel izan behar ditu

Lan originalak aurkeztu behar dira eta ezingo dira izan beste argazki-lehiaketa batzuetan saritutakoak. Argazkiei ukituak egin ahal izango zaizkie, baina ezingo da gehitu edo kendu euren jatorrizko osaera aldatzen duen elementurik.

Irabazleei eskatu ahal izango zaie argazkia egiteko erabili zuten makina eta argazki originala aurkeztu dezatela, argazkiaren benetakotasuna egiaztatzeko.

4. Argazkiak aurkezteko epea: argazkiak aurkezteko epea **2012ko urriaren 1ean** amaitzen da. Epe horren barruan, noiznahi aurkeztu daitezke.

Behin lanak aurkeztu ondoren ezingo dira lehiaketatik erretiratu

5. Lanak aurkezteko modua: parte-hartzaile bakoitzak Durangaldeko herri bakoitzeko argazki bana aurkeztu beharko du (Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar). Guztira 12. Argazkiak e-mailez edo CD batean aurkeztu daitezke, argazkilariaren datu guztiekin:


Argazki bakoitzaren izena. Argazkilariaren izen abizenak. NAN zenbakia. Helbidea. Adina.

Bidaltzeko helbidea: astekaria@anboto.org

Anboto astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

SARIA: 500 euro (argazki onenari)

informazio gehiago:
anboto.org





"Pazientzia apur bat eduki behar da umeeekin"

Zaldibarren minibasket entrenatzailea da Jaione Mendilibar; zortzi eta hamar urte artekoei erakusten die saskibaloian jolasean ibiltzen

Baloia saskira sartzea. Afizio horretan murgildu zen txikitik Jaione Mendilibar, eta gaur egun bera da umeen irakasle. Egindakoa eskertu diote ikasle eta gurasoek. Entrenatzaileen artean ezagunagoa da bere aita, Jose Luis Mendilibar. Alabak, jokalarri profesionalekin ibili ez arren, arduratsua eta langilea dela erakusten du.

Buesa Arenan izan zineten duela pare bat aste. Ikasleen erregaluagaz etorri zinen zu.

Eskolako guraso elkartekoek prestatu zuten bidaia. Umeen ilusioa zen bertara joatea. Gainera, partidua baino lehen eurek ere jolastu zuten kantxan. Autobus bi bete ziren. Gero, [Caja Laboral Baskoniaren] kamiseta jokalarrien sinadurekin eman zidaten eta ilusio handia egin zidan. Detaile polita izan zen.

Noiztik zabiltza entrenatzaile minibasketean?

Iaz hasi nintzen, lagun batez. Bera aurten Donostiara joan da ikastera eta bakarrik geratu naiz. Umeak gustatzen zaizkit eta entrenatzea ere bai; beraz, ederto. Taldean ibiltzea asko gustatzen zait. Asteazken zehar entrenatzea, asteburuetan jokatzea...

Eta jolasten?

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan-edo hasi nintzen jolasten. Iaz utzi nuen.

Batzuek uste dutena baino teknikoagoa da saskibaloia...

Ni oso-oso ona ere ez naiz e! (barrez) Baina tira, behintzat ahal nuena egiten nuen. Teknika gaitza da saskibaloian.

Zelan joan da aurtengo denboraldia?

Oso ondo. Iaz partidu dezente galtzen genituen, baina aurten pozik amaitu dugu. Liga bi eduki ditugu. Lehenengo ligan lehen postuan geratu ginen. Gero, hainbat ligatako lehen hiru sailkatuok beste liga bat egin dugu. Gaitza-

goa izan da hau, baina oso ondo joan dela uste dut.

Eta emaitzetaz aparte zelan baloratzen duzu denboraldia?

Oso ondo ere bai. Tira, pazientzia apur bat eduki behar da umeeekin. Egun batzuetan nekatzen zara. Baina, niri hauxe gustatzen zaidanez...

Ez da zeregin erraza umeen entrenatzailearena...

Errieta egin eta ipintzen dizute aurpegi bat... Batzuetan ez dakizu pasatu egin zaren edo ez.

Zer behar du entrenatzaile batek?

Lehenengo eta behin umeak gustatu behar zaizkizu. Gauza bat da entrenatzea, baina umeeekin ere konpondu behar duzu. Pazientzia handia eta erakusteko gogoia ere derrigorrak dira. Entrenamenduak etxetik prestatuta eroatea ere bai, nire ustez.

Diozu gustura ibiltzen zarela entrenatzen. Zer ematen dizu halako esperientzia batek?

Eurekin, umeeekin egoten ere ikasten duzu. Kaletik ikustea



eta eurekin jolastea eta halako gauzak... Gainera, pila bat des-konektatzen duzu; etxean azterketetarako ikasten zaudenean, adibidez.

Zure aita futbol entrenatzailea da Osasuna taldean. Ematen dizu aholkurik?

Ez! (barrez). Bera futbolean dabil eta ni saskibaloian. Baina, entrenamenduak prestatuta eroateko esaten dit. Umeek, zu ere gogoagaz zaudela jakin behar dutela. Eurek ikusteko inplikaturik zaudela entrenamendu eta partiduetan.

Bilboko Gescrap Bizkaia taldea indartsu dabil azken boladan. Zein talderen jarraitzaile zara?

Caja Laboral Baskoniarena. Bilboko ere gustatzen zait, baina, txikitatik gehiago gustatu izan zait Baskonia.

Eta denetatik zein jokalarri duzu gustuko?

Caja Laboraletik Pablo Prigioni, Mirza Teletovic... Gescrapetik Marko Banic. Azken hau denbora asko egon da Bilboko taldean, eta gustatzen zait zelan jokatzen duen.

Jaione Mendilibar •

Zaldibartarra, hemeretzi urte.

Zuzenbidea ikasten dabil.

Pohnpei Nauru

Pohnpei Nauru, Ozeanian, Mikronesiako Pingelap irlan bizi da. Biztanleak, hango askok lez, akromatopsia izeneko gaixotasuna du. Eritasun genetiko horrek ikusmenean akats ezohikoa eragiten du, zeinaren arabera pertsonak ikusten duena zuri-beltzean bakarrik ikus dezakeen. Hau da, zuria eta beltza izan ezik, gainerako koloreak ezin dituzte bereizi. Gaitza sortzen duen genea CNGB3 ei dugu; deriba genetiko baten ondorioa dena. Ez da, ez, atsegina halako genearen eroalea izatea. Toki lasaian, begien aurrean duzunari begiratzaren hasi, eta: landa berdea zuri-beltza da, eguzki laranja zuri-beltza, lur nabarra zuri-beltza, itsaso urdina zuri-beltza... Laino zuria? Eta nola ikusiko dute ortzadarra? Kolore biko munduan ikusmena mugatzen da, baita sentsazioak euren gaitzatzeko gaitasuna ere.

Europar, aldiz, gaixotasun arrarotzat dute espezialistek. Baina, mendebaldean zein ekialdean, hegoaldean zein iparraldean, bihotzak baditu 'begiak' eta bihotzeko begien bitartez sentimenduak eta emozioak bizi ditugu: bihotzak gorria ikusi eta pasioa gogoratzen dio, berdea ikusi eta esperantza datorkio, larrosa ikusi eta edertasuna irudikatzen du, horrela, haizearen kolorea ez den kolorea ikusteraino. Koloreek, kontrasteek 'guago' egitearekin batera, bizimodu irekiagoa ematen digute.

Ez dakit begietako akromatopsia osatu daitekeen, baina bihotzekoa bai: zeure buruarengandik urrunduz eta besteengana hurbilduz sendatzen omen da. Tira, botikara, plazara, hantxe duzu hurkoa, sendatzen lagunduko dizuna.

DURANGO

2 logelakoak 210.000 €-tik aurrera • 3 logelakoak 240.000 €-tik aurrera
garajea, trastelekua eta sukaldea barne • BEZ gabe

ETXEBIZITZEN KOOPERATIBA MURUETABARRI

Durango • FINCAS EZKURDI Ibaizabal auzunea 5B, behea
T. 946 57 00 23
Bilbao • Sabino Arana, 35 • T. 946 79 03 81

Beste etxebizitza kooperatiba batzuk:

www.inmoarrasate.com

FINANTZIAKETA:

Etxebizitzak
kostu
prezioan

Primerako
materialak
DOMOTIKA